

1994ko urtarrilak 28

221. zenb.

PRESS

ARRASATE



**Greba:
krisiari aurre
egin nahian**

NOLA EZ DAKIZULA NORTZUK DIREN?

...L'Aigua Dira...



Alicantekoak dira eta guzti hau esaten da eurretaz:

"... oinarrikoenaren bila ibiltzen dira beti, zehaztasunaren bila, euren lana depurazio estilistiko handiko lana da, eta horretan ari dira saiatzen. Oraingoz, sailkatzeko zaila den estetika berezi batez gain, publikoaren gozamina ekarri du".

Nel Diago (El Público)

BAINA ORAINDIK GEHIAGO DAGO...

"Viva la Pepa'rekin gertatutakoak antzerki honen bereziarengatik estatu mailan zabaltzea ekarri bazuen, oso ondo lortutako identitate kreatiboa finkatzen duen kolpea da 'Juan Palomo'.

G. Serrat (Manlleu. Barcelona)

"Antzerkiaren plazerra gozatzea bezain maiz gertatzen ez den gozamina"

Miguel A. Auladell (Información. Alicante)

HITZEGITEARI EZ DIOTE UZTEN GAINERA...

"Sei hilabete daramatzat oilasko berarekin salda egiten"...

Clown-ak, pailazoak, eskenatokiaren gainean, bere ahotik eta guretik hitz egiten du; eta zaharrei eta jakintsuei baino entzuten ez zaizkien agiak esaten ditu.



ETA OSO ONDO JARTZEN GAITUZTE...

"Hemendik, eta eskenatokian egiten den jokua bitartez, ikuslearen konplizitatea etengabe bilatuz, komedia jaiotzen da, eta itxura baten sinplea dirudien arren, oso da eraginkorra".

Julian Huerta (Costa Blanca. Alicante)

— IZZUGARRIA!

— BENETAN?

IZAN ERE...

"Eskentokiko jokua artean, horretan, maixuak dira".

Endal Gracia (Barcelona)



Juan Palomo Antzerki komikia

Alicanteko Teatro de L'aigua`

Urtarrilak 28

Gaueko 10etan

Amaia antzokian

Sarrera: 500 PTA (300 Gazte

Txartelarekin)



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurjaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Kapitalismotik baztertuak

Azken egunotan Chiapas herrialdeko indiar mexikarren iraultzaren inguruko informazio ugari ari gara jasotzen, eta Salinas de Gortarierekin irudi publiko dizdiratsu eta ikusgarria beratzen jarri da. Euren lurak eskatzen dituzte, botere demokratikoa, PRIren korrupzioetatik garbi, eta indiarrak sistematikoki marginatu eta gutxiengoaren eta botereari jositako jauntxoaren alde egiten duen botere despotiko baten loturak apurtzeko nahia dute. Pobreek mila amarru bilatzen dute hirietan irregularki sartzeko. Mejiko Distrito Federala eskala suizidan ari da hazten. Guadalupeko Amarenganainoko erromesaldia, bere aurrean otoitz egin eta betirako hirian geratzeko era izkutua da. Zeinek ukatuko dio bere Amabirgina maitearenganako debozioa? Inork ere ez. Nekazal munduan hiri handirako, Doradorako exodoa da modernitatearen tranpa handia, milioika pertsonaren desgraziaren tranpa. Kapitalismoa, bakarrik geratu da, utopia eta eredu alternatibo barik, eta teknologia eta eztanda demografikoaren artean akonplejuriko mundu honen zoriari begiratzen dio inpotentzia.

Baina garapen bideetan dauden herrialdeetan behartsuen mundua ikusgarri eta dramatiko bada, berri xamarra da mendebaldeko herrialdeen fenomeno, marginazioa eta azkar ari da hazten, arrazoi eta irtenbideei buruz erreflexioa egitera behartzen gaitu. "Le Monde diplomatique"ren monografia batetatik ateratako datu batzuk lagungarri izango zaizkigu.

Europak %20arekin parte hartzen du munduko errentan, lurrazaleko biztanlegoaren %7 du eta bake eta aurrerapen irla gisa ageri da, baina 53 milioi behartsuko multzoa du bere baitan. 38 milioi 1975ean, 44 1985ean eta 53 milioi 1992an.


Herrialde bakoitzeko batzbesteko errentaren erdira iristen ez direnek osatzen dute pobreen multzoa eta euren zortea jakinekoea da pobretasun gunean sartzen direnetik. Pobrezia eraztun horretatik irteteko zailtasunek, alfabetatzerik eza, nahasmen eta pi-

laketa bezala automatikoki sortzen diren murrizketak direla eta, jakinduria eta kompetentzia osatutako bizitarako ezgai egiten ditu. Lan merkatua itxi egiten zaie, eta lanik ezaren espiralak erremediorik gabe drogara, informalitatera eta krimenera eramaten du.

Denontzako lanik gabeko etorkizuna nahitaezkoa izango dela dirudi, iraunkor eta bizi guztirako; zintzoenek Keynes asmatu dute berri, baina botika miragarriak sortzen ez bada, ideia berriak sortu beharko dira, lana dutenentzat enfoke berriak, seguruenik traumatikoak, sortu beharko dira. Lurrikara sozialeko garaia datozkigu.

Botere publikoek gero eta kopuru handiagoak jartzen dituzte gastu sozialetarako, baina gastu publikoek gainezka egiten dute, deskuadre ekonomikoa, inflazioa sortzen dira, mundu mailakoa den konpetitibitateari eragiten diote, eta horrekin zailagotu egiten da gizartearen maneja. Gure bilakaera historikoan harrapatuta gaude, alde batetik mundu mailako sistema bakarrak, aberastasunak sortzen dituen bitartean, diskriminazioa, polaritate dramatiko eta injustua. Elkar-tu ezindako muturrak dira, eta paradajikoki aldiberean aberaste eta pobretzea ekarriko duen prozesu hori berri bideratzeko, teoria eta praktikoa politikoa berriak eraikitzea eramango dute gizartea.

JESUS LARRAÑAGA



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publikitateak:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Eukeni Olabarrieta, Aranxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Udako Ingarugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Gokiolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrañaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko marrazkia: Kopi.

I z a d i

Sendabelarrak, dietetika eta
kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren
kontsulta

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79
Montezino, 8 79 03 56



**Alkoholarekin arazoak
dauzkazu?**

Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**



77 08 15



taldelan

Apainketa - Diseinua
PROIEKTUAK / BERRIKUNTZAK
Obrak zuzendu

Erguin kalea, 12
Tfnoa: 77 05 97

ARRASATE
Faxa: 79 02 13

•••••
**Euskara
ikastea, denon
eskubidea**

1993an, hiritar orok euskara ikasteko duen eskubidearen aurka, AEK-ko euskaltegiaren aritutasunak 917 heldu Nafarroan eta 16.863 Euskal Autonomi Elkartearen aipatu bi eremuotako administrazioek inolako dirulaguntzarik gabe utzi zituztela eta egoera berebera daudela 1994. urtean kontutan izanirik;

Neurri horrek kalteturiko euskaltegiek eta oro har AEK-k, gizarte ekimenaren adierazle gisa, helduak eskaldunduz eta alfabetatuz zein euskararen aldeko kontzientziaketan (Korrika...) aspaldidanik egiten duen lana ezagutu beharrean, berau kolokan jarri eta larriki oztopatzerako datorrelako irizizkoak izanirik;

Euskarak bizi duen

egoeran eta bere normalkuntza prozesuan, helduen euskalduntze-alfabetagintzan diharduen gizarte ekimena eta administrazioaren arteko gatazkak adostasunerako jarrerak eta neurriak bultzatuz konpontzeko behar larria dagoelakoan.

Hiritar orok euskara ikasteko duen eskubidea onartuz eta horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz, euskaltegi guztiak aintzatetsi eta diruz lagun diezaiela eskatzen dugu.

Hau kontutan izanirik, otsailak 20an, sinadura bilketarako jarriko diren mahaietan zuen izena ematera gonbidatzen zaituztegu.

ERDU-AEK EUSKALTEGIA

ARKOKO LANGILEAK

Gida 94

Jadanik ARKOk argitaratu duen "GIDA94" liburuxka zuen eskuetatik pasata izango da. Gida hau, Leintz bailarako biztaleoi zerbitzu berri bat eskeintzeko asmoarekin argitaratu zen. Denok dakigunez, badira zerbitzu hau betetzen duten zenbait argitarapen baina praktikotasun falta zutela oharturik, eta gainera publizitate enpresa askok produktu bezala eskeintzen zituztenez, ARKOk publizitate sailak erronka bezala hartu genuen gabon zaharretarako GIDA 94 liburua argitaratzea. Arazoak ez dira gutxi izan, lana astuna eta zaila gertatu zaigu eta benetan ezinezko izango zitzaigun **Bailarako merkataria eta profesional** guztiak eskeinitako konfidatza eta laguntzarik gabe "GIDA 94" hau argitaratzea. Jende guzti hau izan da zerbitzu berri honen promotorea eta horregatik ARKOk hitz hauetan **esker mila** bidali nahi die. Era berean, hauetako batzuk izan dira presaren eta esperientzia faltaz kaltetuak; hauei publikoki eta ozenki **barkamena** eskatu nahi ditugu. ARKOk publizitate sailak argi eta garbi utzi nahi du gaur egun merkataria eta profesionalen laguntzarik gabe ezinezko izango litzatekela gure aldizkari eta telebista proiektuekin aurrera egitea. Horrela bada, GIDA 94ean akatsen bat egin badugu, hainbat lasterren guregana jo, datorren urterako zuzendua izan dadin.

Bide batez, edozein gauzatarako zuen zerbitzura gaituzuela jakinerazi nahi genizuke.



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21

Grebak zeozertarako balio izango duela uste duzu?



Carlos Martín
Kooperatibista (33 urte)

Greba egin arren gobernuak ez ditu neurriak aldatuko. Grebak balio izango du, langileen eskubideak zaintzeko sindikatu batzuk badaudela erakusteko.



Begoña Gantxegi
Merke Kiloko dendaria (46 urte)

Greba egitea ondo dago. Baina uste dut honekin arazoa ez dela konponduko.




Jesus Agirreurreta
Langabetua (61 urte)

Zeozertarako beharbada bai. Gainera, gogor egitea falta da.



Julia Zubiaga
Etxekoandrea (86 urte)

Ez dakit zeozertarako balioko duen, hori ondoren ikusiko dugu.



Rafael De La Maza
Corte Luiseko dendaria (24 urte)

Zerbaitetarako bai. Nik uste positiboa izango dela egingo dutenentzat.



Lucía Murillo
Etxekoandrea (30 urte)

Nik uste dut baietz. Nik, berriz, ezin izango dut grebarik egin, etxean lanak egin beharko ditut eta.



Eugenio Otxandiano
Langabetua (61 urte)

Gehienak alde daudenez, nik uste zerbaitetarako balioko duela. Garbi dagoena da hile bukaeran poltsikoan igarriko dugula.



Marta Arribas
7 Mareseko dendaria (25 urte)

Jende askok egiten badu arrakastatsua izango da, baina arazoa ez da konponduko.



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



José Angel Iborra

Tfno mugikorra: 908-77 08 56

Arrasate Pasealekua, 12 Bis
Tfnoak: 79 34 23 / 79 98 94

Telemezua-doaneko deia:
900595959 - Bazkide Znk: 400438

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguualatorria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazkiak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udai zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 28
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Larunbata 29
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

Igandea 30
 Egunez eta gauzez: Amezua. Sta. Marina.

Astelehena 31
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Magdalena.

Asteartea 1
 Egunez 22.00ak arte: Morales. San Andres.
 Egunez eta gauzez: Camacho. Oxirondo.

Asteazkena 2
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
 Egunez eta gauzez: Camacho. Oxirondo.


Osteguna 3
 Egunez 22.00ak arte: Español. Iturriotz.
 Egunez eta gauzez: Puy. Barrenkale.

28 OSTIRALA

ZINEA
 "Intruso". 7etan eta 10etan.

ANTZERKI KOMIKOA
 Teatre De L'Aigua antzerki taldearen "Juan Palomo" obra. Gaueko 10.30etan, Amaia antzokian. Sarrerak takilan, 500 PTA, gazte txartelarekin 300 PTA.

SAN BALEIXO JAIAK
 Meatzerreka auzoan. Arratsaldeko 8etan jaien hasiera, eta 9etan auzo afaria jubilatuen omenez. Ostean, erromeria herriko trikitilariekin.




29 LARUNBATA

ZINEA
 "Extremadamente peligrosa". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

SAN BALEIXO JAIAK
 Meatzerreka auzoan. Arratsaldeko 4etan ume eta gazteentzat jolasak. 5etan XIII. mus txapelketa. Gaueko 11etan erromeria Anaiak taldearekin. Goizaldean, txarri harrapaketa eta berakatzopa.

MEZA
 San Andres auzoko parrokiaren 7etan. La Asunción ikastetxe-ko ikasle ohiek antolatuta. Arantxa Garziarenaren lehen urteurreneko meza eta Ana Mari Bartolomenen oroimenez.



SAN BALEIXO JAIAK

Meatzerreka auzoan. Ostiralean hasi eta igandean bukatuko dira. Larunbatean, arratsaldeko 5etan mus txapelketa egingo da; izenak txapelketa hasi baino ordu t'erdi lehenago emango dira.



30 IGANDEA

ZINEA
 "Extremadamente peligrosa". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

BATZAR NAGUSIA
 San Felipe Apóstol elkarlaguntzako elkarteak deituta. Eguerdiko 12.15etan, San Viator ikastolan. Gai zerrenda: Azken batzarreko txostenaren irakurtze eta onartzea, urteko ekintzen irakurri eta onartzea, diru balantze irakurri eta onartzea, aurtengo administrazio gastuen aurrekontua, zuzendari batzordearen berritzea eta beste batzuk.

SAN BALEIXO JAIAK
 Eguerdiko 12etan meza San Balezko ermitan, Goikobalu abesbatzak ere parte hartuko du. Eguerdiko ordu 2etan, buruhandiak eta jaien amaiera.

31 ASTELEHENA**ZINEA**

"Extremadamente peligrosa".
7etan eta 9.30etan.

**EUSKAL DANTZA
IKASTAROA**

Lore Gazteak taldeak antolatuta. 10 urtetik 14 urte bitarteko gazteen-tzat. Ikastaroa otsailean hasiko da eta San Juane-tan bukatu. Ostegunetan emango da, arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara. Matrikula 1000 PTA. Plaza mugatuak. Izenematea Gazte Informazio Bulegoan.

1 ASTEARTEA**ZINEA**

"Extremadamente peligrosa".
7etan eta 9.30etan.

BILERA INFORMATIBOA

Gaia: Bosniarren egoera. Arratsaldeko 7etan, Eskoriatzako San Viatorren.

ESKI TRABESIA

Besaide M.Eko Mendi Eski Taldeak travesia antolatu du. Non-dik norakoa. Lizara-Bisaurin-Gabardito. Otsailak 5 eta 6an. Izenematea otsailaren 1ean eta 2an, Besaide Egoitzan 7.30etatik 8.30etara. Prezioak: bidaia, alojamiento eta afaria barne: bazkide nagusiek 4.500 PTA, bazkide gazteek 2.250 PTA, bazkide ez diren nagusiak 5.000 PTA, bazkide ez diren gazteak 2.500 PTA. Bidaia eta alojamiento: bazkide nagusiek 2.500, bazkide gazteek 1.250, bazkide ez diren nagusiak 3.000 eta bazkide ez diren gazteak 1.500 PTA

2 ASTEAZKENA**BOSNIARRAK**

Gaia: Bosniarren egoera. Arratsaldeko 7etan, Aretxabaletako udaletxeko ganbaran.

**AQUAGYM. URETAKO
GIMNASIA**

Aretxabaletako Kirol-etxean. Hasiera otsailaren 1ean. Ikastaroak hilabete bateko iraupena izango du. Astearte, ostegun eta larunbatetan. Izenematean, bazkideek 2000 PTA ordaindu beharko dute eta 4000 PTA bazkide ez direnek. Ikasle kopurua, 10 gutxienez eta 15 gehienez. Informazioa edo izenematea Aretxabaletako Kirol-etxean, telefonoa 796461.

3 OSTEGUNA**SAN BLAS EGUNA**

Aretxabaletako Apotza Etxeberri auzoko San Blas ermitan meza, goizeko 11etan

BIDEO EMANALDIA

Victor Erice zuzendariaren "El Sol Del Membrillo" filmea. Monterronen, 6.30etan. Dohainik.

SAN BLAS EGUNA

Otsailaren 3an. Aretxabaletako Apotza-Etxebarri auzoko San Blas ermitan meza izango da goizeko 11etan. Mezetan, eramandako janaria be-deinkatuko da. Nola joan Arrasatetik? Oinez: Aretxabaletako Valle Leniz lantegi ondoan, ermitaraino eramango zaituen bidea dago. Kotxez: Ibarra futbolzelai ondo-ko Malkorre etxetik aurrera dagoen bidetik.

**SANTA AGEDA EGUNA**

Otsailaren 4ean, ostirala, korua aterako da Santa Ageda batzera. Goizean Zigarrola eta San Andresen ibiliko dira, eguerdian udaletxera joango dira. Bazkalostean Gesalibarrera eta Erguina. Arratsaldean, AEDko koruaz batera, erdiko kaletik ibiliko dira kantari.



“Nik sindikatuei esaten diet ezin dutela dena eduki, soldata, segurtasuna eta enplegua. Hori gezurra da. Lehenengo biak badituzu, hirugarrena ez daukazu. Horregatik, sindikatuek lanpostua daukaten langileak bakarrik ordezkatzeko defenditzen dituztela uste dut, eta beraien lorpen sozialek prezio bat dutela: gazteak eta emakumeak. (...) Agian zabala izango da eta jendeak greba egingo du, eta horrek ez ditu gauzak aldatuko. 1988ko greba sindikatuek irabaziko zutela ikus zitekeen, ekonomi egoera ona zelako baina orain zuloaren hondoan gaude eta garai txarra da sindikatuek borroka bat planteatzeko, galdu egingo dutelako: lan erreforma ezingo dute aldatu sindikatuek”.

Antton Perez Callejak 93-1-23

Egunkaria

“Ikuspegi material hutsetik, eta kanpokaldekoenetik hasita, kooperatibismoari esker apur bat aberatsagoak garela esan dezakegu. Katarroa eta aberastasuna ezin dira disimulatu eta gorde. Huts hutsean kooperatiba denak sortutako aberastasunaren ondoan, beste mila negozio sortu dira, aberastasun iturri.


Gauza jakina da aberastasunak artea indartu egiten duena. Kultura eta artearen munduak aurrerapauso handia eman du: musikan eta pintura; arte grafikoetan eta literaturan; herri prentsa, telebista eta irratiari; euskararen aldeko elkartetan; parke, lorategi eta pasealekutan; gune zibiko zabalen sorreran. ez dut mundu guztia ezagutzen, eta Deba Garaitik hitz egiten dut hartatik. Gure herriak ederrak dira eta egunez egun hobetu egiten dira. (...) Arrasate herri fantasma izaten da opor garaian, bertako batzuk baino ez dira geratzen. Lanerako herria bakarrik ote da, edo erreferentzia baino ez? Arrasateko burgesia ondo bizi dira oraindik”.

Jose M Mendizabal

lanhide


Zertarako erabiltzen da Santa Agedako koruak batzen duen dirua?

Daorren asteko ostiralean, hilaren 4ean, Santa Ageda batzera irtengo du urteroko koruak. Aurrez, laguntza ematen diguten guztiei eskerrak eman nahi nizkieke guztien izenean, eta bide batez jasotzen dugun dirua zertan gastatzen den azaldu nahi nuke. Batutako dirua zuzenean Arrasateko karitas taldearen kontu korrontean sartzen dugu. Ondoren, haiek erabakitzen dute nora zuzendu. laz guztira 660.000 PTA batu genituen. 260.000 PTA langabetuei banatu zitzaizkien, 180.000 PTA gaisoei, 120.000 bananduta dauden nahiz ezkongabeak diren amei eta beste 100.000 etxerik gabe daudenen jatorduak ordaintzeko. Geratu ziren 200.000 PTA berriz, karitasen kontu korrontean sartu ziren. Joan zen urteko emaitza ikusirik, guk uste dugu Arrasateko herriak baduela harro egoteko motiborik. Oraingoan ere, eta bakoitzak ahal duen neurrian, laguntza apur bat emango digutela espero dugu, nahiz eta krisi garaia bizi dugula ere igarri.



Jesus Mari Zabala
Santa Ageda koruko diruzaina

Jakingo duzuen bezala, Santa Ageda koruan Goikobalu eta Parrokiako Abesbatzak partehartzen dute. Aurten, berriz, nobedade batekin irtengo dugu. Goikobaluko hamabi emakume gehituko zaizkigu korura. Gainera, aurrez egin dugun bezala, arratsaldean AEDko koruaz batuko gara. Honetaz gain esan beharra dago, berrogeitamar urtetan koruan abesten ibili eta gero igandean hil zen Juanito Egidazu “Kurri”ren omenez kantatuko dugula ostiralean.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XATHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZA

Arrasatear bat hilda Elchen

Joan den larunbatean Arrasateko gazte bat, Jose Antonio Martin Tena, 23 urtekoa, hilda azaldu zen Elchen (Alicante). Gaztea hiri horretan zegoen azken aldi honetan, eta droga sobredosia izan liteke bere heriotzaren arrazoia. Diru-bilketa antolatu da Arrasaten haren ehorzketarako, eta Elchen lurperatu dute.



Grebaren astea

Osteguneko grebarako deialdi eta asanbladek bete dituzte azken egunak. Sindikatu guztiek deitu zuten protestan parte hartzera, baina bi konbokatoria paralelo egon dira. Batetik, ELA eta LAB joan dira, eta Bergaran deitu zuten eskualdeko manifestazioa. UGT eta CCOO, ordea, Arrasaten antolatu zuten manifestazioa. Desadostasun honetan, beste ezer baino gehiago, "goiko erakunde konfederalen erabakia egon da", Arrasateko UGTko Santiago Peñak adierazi bezala. Irudian, UGT eta CCOOeko ordezkariak grebara deitzeko antolatutako prentsaurrekoan.

Egiagarai ministroa Arrasaten

Espainiako Industria ministroa, Juan Manuel Egiagarai, Arrasaten izan zen joan den astean iragarri bako bisita azkar batean. Donostiara egindako bidaiak labor batean, Mondragon Korporazio Korporatiboa bisitatzeko geldidune bat ere egin zuen Arrasaten. Komunikabideen presentziarik gabe egin zen bisita.

Oñatarrak hilda istri-puan

Beste istri-pu larrari bat izan genuen asteburuan Deba Garaian. Oñatiko bi gazte Zumarragatik Oñatira zihozela hil ziren auto is-

tripu batean Udanan, igande goizaldean. Imanol Arregi, 25 urtekoa, ospitalera zermatela hil zen, eta Mikel Albizu, 23 urtekoa, Arrasateko ospitalean hil zen. Beste gazte bat, Mikel P.T. zaurituta geratu zen. Bestalde, Ertzaintzak gidari mozkor bat atxilotu zuen Arrasaten asteburuan, autoarekin errepidetik irten eta gero.

Adi iruzurgileekin

Ertzaintzak jakitera eman duenez, jubilatua engainatzen diharduten bi iruzurgile ari dira Gipuzkoako zenbait herritan. Kasuak Beasainen eta Arrasaten detektatu dituzte, baina oraindik ez dituzte atxilotu iruzurgileak. Bakarrik bizi den jende nagusia eta baserritarrak

dira iruzurgileen biktimak. Iruzurraren sistema zera da: aurrezki-kutxa bateko ordezkari direla esaten dute, eta opari batzuk ematen dituzte, herri-kirol liburuak edo kuberteriak, adibidez. Horren ordez, ustezko abantaila batzuk lortzeko, ordainketa-agiri bat sinarazten diete jubilatuei, kontuzenbaki eta gutzi. Ondoren, agiri hori kobratzen saiatzen dira lapurrak. Arrasaten, halako engainu batean ari zirela, etxeko semea azaldu zen, eta hanka egin zuten iruzurgileek

JAIOTZAK

- Jon Olivenza Ubeda. Urtarrilaren 17an.
- Manu Alvarez Elola. 19an.

HILDAKOAK

- Dionisio Perez Barrena. Urtarrilaren 19an. 70 urte.
- Constantino Armiño Fernandez. 19an. 60 urte.
- Jose Treviño Maiztegi. 20an. 78 urte.
- Maria Arregi Amilleta. 21ean. 80 urte.
- Simeon Palacin Bodon. 23an. 82 urte.
- Mikel Albizu Zabaleta. 23an. 23 urte.
- Moises Lasa Bengoa. 23an. 81 urte.
- Juan Egidazu Berezibar. 23an. 64 urte.
- Benigno Zuazubiskar Eriz. 24ean. 84 urte.

LODITASUNA, LIPOESKULTURA, LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

ARTOLA KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



JABIER SALABERRIA *

Euskadiko Kooperatiben Lege berria (II)

Diru jaurpidea:

Erregimen ekonomikoari dagokionez, Kapital Sozialari ematen zaion erabilera hobetzen da eta dirubidetze-modu berriak jartzen dira (ekarpen bereziak, partaidetza tituluak, partaidetza kontu hitzarmenak...); kapitalaren interesaren muga legezko interesa baino sei puntu gehiagoraino haunditu da; Derrigorrezko Erreserba Fonda salbuespenetzko kasu batzuetan banatzeko aukera ezarri da.

Eragiketa

Sozietarioak:

Estatutuaren aldaketari eta kooperatibaren bategiteari, zatitzeari edo desegiteari buruz, bazkideen informazio zabalagoa eta jendearentzat zabalakunde berezia azpimarra daitezke. Kooperatibek beste elkarte zabal edo merkatuari itxura har dezakete eta alderantziz.

Lankide Kooperatibek:

Helburu eta berrikuntza hauek nabari dira: bazkide ez diren langileen kopurua mugatu da eta alokatu hauek kooperatibaren emaitzetan parte hartzea ezarri da; bazkide izateko probaldia luzatzeko aukera eman da; lan-sistema eta zi-

gorbidea ezartzeko autonomia errespetatu zaio kooperatibari; azkenik, bazkide langileen etenaldi eta derrigorrezko baja arautu da kooperatiben berregituraketa eta krisi-egoera kasuetan.

Kooperatibak Elkartzea eta Batzea:

Bigarren edo geroagoko mailako kooperatibak arautu dira, kooperatibarteko elkarketei araubide erreala bat eskaintzeko helburuarekin benetako enpresa-lankidetzaren premiei erantzun baharra kontuan izanez. Berregaitasun edo autoarautzeko ahalmen handia izango dute; kooperatibak ez diren elkarteek parte har dezaketen; ematen zaizkion funtsezko ahalmenak estatutuetan zerrendatu beharko dira; lankidetzari nahi duten bezain sakona izan dezakete.

Kooperatibek edozein motako lankidetzara izan dezakete, beren artean nahiz beste pertsona edo erakundeekin, kooperatiba-metodoa bigarren mailako hautabidea edo aplikazina ez dela agertu nahian.

Hautetxek dira lege honen gai azpimarragarrienak. Nere iritziz, lege on bat daukagu; hala ta guztiz, legea beharrezko tresna bat baino ez da. Orain, kooperatiben eta beraien bazkideen esku dago euskal kooperatiba-mugimendua indartsu eta jator bat-eragikar eta demokratikoa, biak batera lortzea.

* KOOP. LEGE-AHOLKULARIA

.....
*“Nere iritziz,
 lege on bat
 daukagu; hala ta
 guztiz, legea
 beharrezko tresna
 baino ez da”*

USTEAK USTE

BELDURRIK GABE

Dagoeneko denok ezagutu dugu Urbina-Maltzaga autopistaren proiektua dela eta, aste hauetan martxan jarri berria den Interbentzio Gune Partehartzaileen lanen prozesoa.

Denok dakigunez, gune hauek osatzen dituzten lanaren helburua beraien iritzia ematea besterik ez da izango, xehetasun eta txosten mordo bat ikusi eta gero; entzun omen dugunez, Administrazioak kontutan izango du gune horien iritzia bere azken erabakia hartzeko unean. Ideia, oso ona deritzait.

Nahiz eta gaia nahiko teknikoa izan, badirudi ilusio handiaz jaso dela estrenatzeko dugun esperientzia hau. Urrats handia herri honek emandakoa. Eta aplikagarri beste kasu batzuetan ere, konfliktiboak izan ala ez. Jakin ondo dakigu zailtasunak azalduko direla behin baino gehiagotan, baina ez larritu gure esperientzia ere gehitzen joango da eta. Eta ziur egon hiritarrok pentsatzen dugun baino gaitasun gehiago dugula horrelako gaien aurrean erabakiak hartzeko.

Halaxe beharko izan. Herrian gero eta protagonismo gehiago eman beharko genioke, nire ustez. Askozaz aberatsagoa da 350 lagunek osatzen duten talde baten eskuetan uztea erabakiren ardura edozein gobernu batzorde txiki baten baino. Beldurrik gabe, aurrera.


J.R. Elorza

.....
**ELEKTRONIKA
 ARTIKULUEN
 SALMENTA**

BAZAR
 TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

**Elektroinjekzio
 Zerbitzua**



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
 ARRASATE



Aurrekontuen giltza neurri handi batean Gipuzkoako Diputazioak dauka (argazkian egoitza).

Gastu murrizketak izango dira 94eko aurrekontuetan

Udalak nahiko aurreratuta dauka 1994erako aurrekontuen idazketa. Batzorde batzuetan egin dituzte kontuak, eta beste batzuetan lanean dihardute; beraz, otsail amaierarako prest egon daitezkeela uste dute udal arduradunek. Iaz, atzerapen nabarmenez, maiatzean, onartu ziren aurrekontuak.

Iazkoak bezala, aurtengoak ere krisi garaiko aurrekontuak izango dira. Gastuak ez dira gehituko, alderantziz baizik, seguruenik. Dagoeneko, herriko taldeei ematen dizkieten diru-laguntzetan, %10eko murrizketa nabari da. Honen arrazoia, urtea amaitzearekin, aurrekontuak onartu arte, aurrekoak luzatu egiten direla da; baina aurten luzapen horri %10eko murrizketa ezarri diote.

Murrizketa horren oinarrian Diputazioaren diru-aportazioaren auzia dago. 1.000 milioi PTako aportazio horrek aurrekontuen herena betetzen du; baina arrisku-kidetzatza kontzeptuaren menpe dago. Hau da, Diputazioak dirua ematen du, baina gero,

zergetan uste beste diru jasotzen ez badu, arriskua "banatu" egiten da guztien artean. Ondorioz, Arrasatek iazko dirutzatik 100 milioi PTA itzuli egin behar dizkio Foru Aldundiari.

Aurten, oraindik ez dakite udalean zenbat jasoko duten Diputaziotik, eta hori da aurrekontuak biribiltzeko falta den datu nagusia. Baina ia gauza segurua da aportazio forala gutxitu egingo dena, sarrerak behera doazelako. Arrasaten ere, kontribuzioak ez dira garestitu eta, ondorioz, ez dago diru-sarreen hazkunderik.

Aurrekontuetan eragina izan dezakeen beste auzi bat alderdien arteko desadostasunak izan daitezke. Iaz, nahiko kontsentsu zabalak izan zen HB, EAJ, EA eta EUEren artean, nahiz eta gero HB eta EAJren arteko tirabirak izan ziren. PSOEek aurrekontuen aurka bozkatu zuen. Aurten kontsentsu bera errepika daiteke, baina baliteke puntu konkretuetan berriz desadostasunak azaltzea.

MCC eta siderurgia

Sestaoko altzairutegi berria sortuko duen elkarte anonimoan parte hartuko du Mondragon Korporazio Korporatiboak (MCC) Fiso elkartearen bitartez, eta jabetzaren % 3a bere esku hartuz. Elkarte berriaren eraketa-ekitaldia joan den ostegunean egin zen Bilbon. Sestaoko altzairutegi berria, euskal siderurgia modernotzeko onartutako planen oinarria da. Oraingo, sozietate berriak promozioa besterik ez du helburutzat.

Arrasatearrei epaiketak

Arrasateko lau presoren epaiketak hasi dira aste honetan Madrilan, bertako Entzutegi Nazionalan. Asteazkenean, Enrike Letonaren aurkako epaiketa izan zen, eta ostegunean lau presoren aurkakoa izatekoa zen: Letona bera, Jesus Mari Zabarte, Pako Martin Robles eta Juan Agirre.

Ezetzta Elkarri

Elkarri erakundeak eskatutako diru-laguntzari ezetz erantzun dio udalak. Elkarriren eskaera aspaldikoa da, baina udaletxean bueltaka ibili da batzorde batetik bestera, zeini zegokion garbi ez zegoelako edo. Azkenean, kultura batzordetik igaro zen gaia, eta 93ko aurrekontua agortuta zegoela eta, oraingo laguntza ukatzea izan da erabakia.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABAETA





Gaztetxeen arteko bilkura egin zen Arrasaten joan den larunbatean.

Gaztetxeko zaratagatik protesta azaldu dute bizilagunek

Gaztetxearen inguruko bizilagun talde batek protesta-gutuna bidali du udaletxera, gaztetxean konponketak egiteko udalak 3 milioi PTako gastua egin duelako. "Arazoari irteera faltsua eskaini nahi zaio horrela, konponketa integrala beharrezkoa denean, intsonorizazio eta guzti", diote bizilagunek.

Azken 10 egunetan, komunak jartzeko eta argiteria sistema hobetzeko lanetan ari dira Gaztetxean, Udalaren enkarguz. Gaztetxeko asanbladarekin lehenago hartutako konpromezua betetzen du era honetan udalak. Gaztetxeari dagokionez, zaratak kon-

trolatzeko eta, kontzertuen ordutegia egokitututa daukatela adierazi digute AGAKO kolektibotik, eta bizilagunei ahalik eta eragozpen gutxien sortzen saiatzen direla.

Baina bizilagunek euren agirian azaltzen dutenez, Gaztetxeak planteatzen dien arazo nagusia zarata da. "Gure osasuna suntsitzen duen eta bizimodua desorekatzen digun soinu esplosibo hori". Horrelaxe definitzen dute Gaztetxeko zarata. Udal korporazioak eta alkateak zerbait egin dezaten eskatzen dute bizilagunek, eta protestatu egiten dute orain arte egindako eskaerei udalean muzin egin zaielako.

Euskararen erabileraren neurketa

Euskararen kale-erabileraren neurketa egiteko plana onartu du udalak aste honetan. 1988tik urtero egiten da neurketa hau, eta oraingoan (7. aldia dagoeneko), jakinmina dago ea iazko kale-erabilera maila altua, %25ekoa, gainditzen den ikusteko. Udal arduradunen iritziz, %20 edo %25ean geratuko balitz ere, neurria poztekoa izango litzateke. 88an, %11ko kale-erabilera eman zuen azterketak. Erabilearen neurketa, kaleetan (erdi-gunean eta auzo guztietan) eta egoitza publikoetan (funtzionarioen eta bezeroen arteko harremanetan) egingo da, aurreko urteetan bezala. Baina aurten berrikuntza bat ere badago: telefonoz egindako galdeketak, ea aparailuan euskaraz ala erdaraz erantzuten dugun jakiteko. Neurketa AEDko gazte sailak egingo du otsailaren 3. asteen, Udalaren enkarguz. Datuak handik gutxira ezagutuko dira, eredu estadistiko jakin batzuk aplikatutakoan.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



UCEMek tokiz aldatu nahi ditu Cerrajerako eta Transformados, bide batez lanpostuak murriztuz.

UCEMek Cerrajerako terrenoak saldu nahi ditu

ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek eskaera bat egin diote udalari, Cerrajerako terreno industrialen kalifikazioa permititu ez dezan. Guztira, 70.000 metro karratu betetzen dituzte terreno horiek. UCEM Cerrajera eta Transformados Metálicos enpresen geroa dago jokoan auzi honetan, eta bi enpresa hauen jabe den UCEM korporazioak honakoa proposatu die langileei: oraingo lantegiak utzi, terrenoen salmentarekin kapital berria lortu eta beste toki batean kokatu lantegiak, langile murrizketa batekin.

Sindikatuak ez dute onartzen UCEM Korporazioaren plangintza. UCEM-en pla-

nen arabera, lanpostuen erdiak desagertu egingo lirateke, batez ere Transformados Metálicos-en. Horregatik, UCEM-en asmoak galerazteko, Cerrajerako terrenoen berkalifikazioa ez baimentzeko eskatu diote udalari. Izan ere, UCEMek nahi duen moduan terrenoak saltzeko, oraingo erabilera industrialera aldatu egin beharko litzateke.

Bestalde, sindikatuek bideragarritasun plana eskatu diote UCEM korporazioari, lanpostu guztiak mantendu ahal izateko plana. Baina UCEMeko administratzaile bakarrak, Iñaki Olaizolak, baztertu egin du bideragarritasun plan hori egiteko aukera.

Maltzaga-Urbinaren aldeko plataforma

Maltzaga-Urbinaren aldeko Deba Beheko eta Deba Garaiko bi plataformek bat egin dute. Horrekin batera, beste eskualde batzuetan (Urola eta Gas-teiz, adibidez) laguntza eskatu dute, eta Eusko Jaurlaritzari ere aurkeztuko diote euren eskaera: errepi-de azkar hau egin dezatela, proiektua izoztu barik eta ahanzten utzi barik. Errepi-de ereduari buruz, ezer konkreturik ez eskatzea erabaki dute bi plataformek bat egiterakoan. Orain arte, Deba Behekoak autopista defenditzen zuen. Deba Garaikoak, ordea, alor hori ez ukitzea nahiago izan du, eta orain, beraz, Deba Garaiko ikuspuntua hartzen du plataforma bakunak. Plataforma bateratuan Arrasateko eta inguruko enpresa munduko pertsona ezagunak daude. Esate baterako, Alvaro Arregi, Jose Ramon Gorosabel, edo Jose Antonio Altuna. Bestetik, aste honetan beste bi Interbentzio Gune bildu dira Arrasaten, ardatzaren inguruan eztabaidatzeko.

- Karatea
- Aerobic-a
- Sauna
- Solariuma



- Mantenimendu
- gimnasia
- Muskulazioa
- Squash-a
- Masaia

Kontzezino kalea, z/g. Tfnoa: 79 97 31 ARRASATE



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50


OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

entreviu

“Bozioa ez da pobreen kontua bakarrik” izenburupean, Aramaioko biztanle gehienek bozioa dutela eta, Entreviú aldizkariak horri buruzko erreportaia kaleratu zuen bere azken alean. Aramaio herri txikia izan arren, badirudi arazo handia duela. Hona hemen erreportaiko pasarte aipagarrienak.

En el Valle de Aramaiona, una de las comarcas más prósperas del País Vasco, la mitad de los vecinos padece esta enfermedad



Aldizkariak esaten duenez biztanleriaren erdiak bozioa du, sulfato gutxiko ura edategatik, haragi larregi eta arrain gutxi jategatik eta heredentzia genetikoak dela eta. Barajuengo **Nikolasa Altunak** halaxe dio erreportaian: “Nire ustez hau uraren kontua da. Nire anaia Apolok bozioa burua baino handiagoa zuen. Ezkondu zen, Mondrauera bizi izatera joan, ur hobe edan eta orain sano dago”.

Beste hainbat aramaixotarren iritzia ere jasotzen da. **Don Ambrosio marianista** honela dio: “Lehen bozioa gehiago igertzen zen. Orain dela hirurogei urte, itxura mounstrosoa zuten herritarrak zeuden”. Jesus Mari Elejalde parrokoak argazki eta guzti: “Arraina jatea Aramaion, inbento berria da”. Ramón Uribe alkateak: “Egia esan bozioarena arazo handia da. Eta pena da, hemen ia ez baitago arazorik”.



Erreportaia argitaratzeak izugarritzko ikusmina sortarazi du eta aramaixoak guztiak ale bat eskuratzen saiatu dira. Horregatik, Aramaio eta inguruko herrietan berehala agortu dira aldizkariak. Bitartean aramaixotarrek, aspalditik egiten duten bezela, yododun gatza botatzen diete janariei, gaisotasunaren prebentziorako oso ona dela eta.

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

IZEN PROPIOAK

● David Zapirain

Karrikak, 26 urte, Jose Letona beka eskuratu du. Beka honen helburua, XVI. mendeko Arrasate aztertzea da. David pasaitarra da eta Geografia eta Historian lizentziatua. Orain arte, Diputazioak eskatuta, Gipuzkoako Komunikabideen historia ikertzen egon da.

● Dani Martín, 24

urteko arrasatearra, kontzientzi eragozlea Bosniara joan da laguntza humanitarion lan egitera. Dani psikologian lizentziatua da. Hiru hi-labete barru etorriko da eta Arrasaten hilabete bat egon ondoren, beste hiru hilabeterako bueltatuko da.

● Juan Luis Arexola-Leiba "Gatxi", 29 urte,

Oñatiko enpresa batetan hasiko da komertzial lanak egiten. Juan Luis arrasatearra da eta AEDko dinamizatzailea izan da zazpi urtez.



lgandean, **Joxe Manuel Arriola** arrasatearrak eta gerra osteko beste zortzi bertso jartzaile gipuzkoarrek omenaldi hunkigarria jaso zuten. Izan ere bertsoen munduan guztiek dute lekua, bertsolari, bertso jartzaile, bertso ikerle...

Arrasate Kirolak-ek antolatutako "Porrie" lehiaketako irabazlea, **Juan Antonio Delgado** eta honen neska-laguna, **Alicia Delgado**, joan zen larunbatean Anoetan izan ziren. Palkotik ikusi zuten Erreala eta Barça taldearen aurkako partidua. Juan Antonio ez zen oso pozik atera, bera oso Barçazalea da eta, baina hala ere, Errealak merezimendu osoz irabazi zuela aitortzen du.



Jon Etxebarria eta **Iban Lizarralde** ETBko "Hor dago Koxka" saioan parte hartu zuten. Jon finaleraino heldu zen eta 400.000 PTA irabazi zituen. Hori bai, bere lagun minari erdia emateko asmoa du, nahiz eta haziendak % 25a kenduko dion. Otsaileko lehen ostegunean agertuko dira telebistan.



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Mendi
taberna

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

LORAMENDI KIROLAK



**TXAMARRAK,
TXANDALAK, FORRO
POLARRAK,
PLUMIFEROAK...ETA
BESTE GAUZA ASKO**

**BEHERAPENETAN
JARRAITZEN DUGU**



**SKI MATERIALEAN
AUKERA EZINHOBEAK!**

- SKIKO PRAKA AKOLTXTATUAK %50EKO BEHERAPENA
- BOTAK, 5000 PTATIK HASITA
- BUZOAK, %30EKO BEHERAPENA

Euskal Dantza Ikastaroa

- Lore Gazteak taldearen eskutik
- 10 - 14 urte bitarteko gazteentzat
- Otsailetik San Juanetara
- Ostegunetan, 6,30etatik 7,30etara
- Matrikula: 1000 PTA



• **PLAZA MUGATUAK**

Izen emateak Gazte Informazio Bulegoan Tfnoa: 77 00 65



Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



Bigarren faseruntz zuzenean

Bost partidu falta dira lehen fasea amaitzeko, eta dagoeneko nahiko argi daude gauzak. Matematikari jarraiturik, bi talde zuzenean sailkatuta daudela ikusten da (Suministros Ugarte eta Argi Ibili), baina beste mordo batek ere nahiko erraza dauka eta ez luke gehiegi arduratu behar. Hala ere, 2. faseko zozketarako, postuak kontuan hartuko dira zerrendaburuak markatzeko, eta beraz, postuei eustea garrantzitsua izango da.

Guk datorren astean esplikatuko dugu bigarren faserako aukeratutako sistema hori. Asteburuko jardunaldiari dagokionez, aspaldiko partez ez da ageri bi zifrako emaitzarik inoren alde. Hala ere, beste talde batek gainditu du 100 golen marka (Argi Ibilik) eta goleatzaileen bihurtu dira. Kontrako ehun golak ere gainditu ditu Corinto Tabernak. Bestalde, jardunaldi honetan bi inpugnazio egon dira, baina biak atzera bota dituzte.

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

MENDIA

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

| A taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-------------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| SUM. UGARTE | 14 | 14 | 0 | 0 | 97 | 21 | 28 |
| TRIKITI | 14 | 13 | 0 | 1 | 67 | 16 | 26 |
| ARLUTZ | 14 | 10 | 3 | 1 | 69 | 23 | 23 |
| JEY JULIWER | 14 | 9 | 3 | 2 | 57 | 24 | 21 |
| UGLYS TXINATO | 14 | 9 | 2 | 3 | 62 | 40 | 20 |
| ZOTZ | 14 | 9 | 2 | 3 | 49 | 42 | 20 |
| ANBOTOSTE KT | 14 | 7 | 3 | 4 | 35 | 26 | 17 |
| SOKOAKOAK | 14 | 8 | 1 | 5 | 59 | 45 | 17 |
| BIZKORRAK AVE. T. | 14 | 6 | 3 | 5 | 54 | 39 | 15 |
| BERANGO SUKAL. | 14 | 7 | 1 | 6 | 44 | 35 | 15 |
| KOKKAS | 14 | 5 | 2 | 7 | 37 | 41 | 12 |
| IKATZ | 14 | 4 | 2 | 8 | 46 | 70 | 10 |
| RESAKAS | 14 | 3 | 3 | 8 | 39 | 52 | 9 |
| EUSKAL INDARRA | 14 | 4 | 1 | 9 | 56 | 68 | 9 |
| WHISKERIA LINDE | 14 | 4 | 1 | 9 | 37 | 84 | 9 |
| AUF DEM KOFFER | 14 | 3 | 1 | 10 | 25 | 52 | 7 |
| FRAGUEL GOL | 14 | 2 | 3 | 9 | 30 | 48 | 7 |
| BAYERN LENITZ | 14 | 3 | 0 | 11 | 23 | 67 | 6 |
| ALLA KUIDAUS | 14 | 3 | 0 | 11 | 24 | 76 | 6 |
| ETXE MOBILIARIO | 14 | 1 | 1 | 12 | 31 | 72 | 3 |

| B taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ARGI IBILI | 14 | 14 | 0 | 0 | 105 | 36 | 28 |
| DANOK LAGUN | 14 | 8 | 6 | 0 | 37 | 18 | 22 |
| ZULOAK | 14 | 10 | 2 | 2 | 54 | 29 | 22 |
| ARR. KIROLAK | 14 | 10 | 0 | 4 | 55 | 35 | 20 |
| LEINTZ GARAGAR. | 14 | 9 | 2 | 3 | 60 | 24 | 20 |
| ALPEN KRAUSSER | 14 | 9 | 1 | 4 | 68 | 73 | 19 |
| IRATI STS | 14 | 7 | 4 | 3 | 56 | 30 | 18 |
| BUKANAK | 14 | 8 | 2 | 4 | 54 | 34 | 18 |
| BETRAYER | 14 | 7 | 2 | 5 | 60 | 38 | 16 |
| TRONKOTEAK | 14 | 7 | 2 | 5 | 40 | 44 | 16 |
| EXCAV. LETE | 14 | 4 | 5 | 5 | 38 | 42 | 13 |
| NOTXINGAN FLO. | 14 | 4 | 4 | 6 | 43 | 54 | 12 |
| OOOLE | 14 | 5 | 1 | 8 | 48 | 66 | 11 |
| OJO AVISORE | 14 | 4 | 3 | 7 | 58 | 57 | 11 |
| GANBELAS | 14 | 5 | 0 | 9 | 41 | 50 | 10 |
| DIEGO ANTONIO | 14 | 3 | 1 | 10 | 34 | 51 | 7 |
| FANCY BOIS | 14 | 2 | 2 | 10 | 36 | 62 | 6 |
| KOPYPREST | 14 | 2 | 1 | 11 | 39 | 70 | 5 |
| MONTERREY Z.B. | 14 | 2 | 1 | 11 | 35 | 78 | 5 |
| ATXANTA KE TE... | 14 | 0 | 1 | 13 | 23 | 93 | 1 |

| C taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-------------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| NABARROS | 14 | 11 | 1 | 2 | 49 | 25 | 23 |
| FOSFOROS | 14 | 11 | 1 | 2 | 71 | 20 | 23 |
| LOS HEREDIA | 14 | 10 | 1 | 3 | 48 | 21 | 21 |
| MIKELOS | 14 | 10 | 1 | 3 | 57 | 28 | 21 |
| KAKAJAURI | 14 | 8 | 4 | 2 | 54 | 27 | 20 |
| ARR. KRISTALDEGIA | 14 | 9 | 2 | 3 | 51 | 30 | 20 |
| PEPELUS | 14 | 7 | 2 | 5 | 56 | 35 | 16 |
| MOTZ | 14 | 7 | 1 | 6 | 61 | 38 | 15 |
| HIREI | 14 | 6 | 2 | 6 | 48 | 43 | 14 |
| ADELAIDA HAIZEA | 14 | 5 | 3 | 6 | 35 | 42 | 13 |
| TXOKO TABERNA | 14 | 6 | 1 | 7 | 29 | 44 | 13 |
| LOS DALTON | 14 | 5 | 2 | 7 | 48 | 53 | 12 |
| KIRTEN TROPEL | 14 | 4 | 3 | 7 | 28 | 41 | 11 |
| FOTO IMAGEN | 14 | 4 | 3 | 7 | 37 | 47 | 11 |
| LEYA | 14 | 5 | 1 | 8 | 43 | 71 | 11 |
| MZK GANBELAS | 14 | 4 | 2 | 8 | 36 | 44 | 10 |
| POTROSORRI | 14 | 5 | 0 | 9 | 28 | 37 | 10 |
| SIBILIUS ROVER | 14 | 4 | 0 | 10 | 21 | 47 | 8 |
| BORROCKN ROLL | 14 | 3 | 0 | 11 | 33 | 76 | 6 |
| CORINTO TABERNA | 14 | 1 | 0 | 13 | 27 | 101 | 2 |

| D taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ZULUS | 14 | 11 | 3 | 0 | 104 | 32 | 25 |
| POTROAK LORATEGI | 14 | 11 | 2 | 1 | 67 | 32 | 24 |
| TUTTIFRUTI | 14 | 10 | 3 | 1 | 73 | 38 | 23 |
| CARBUROS | 14 | 9 | 4 | 1 | 59 | 22 | 22 |
| AC SURCOS | 14 | 10 | 2 | 2 | 67 | 30 | 22 |
| REVOLUTION ROCK | 14 | 11 | 0 | 3 | 64 | 30 | 22 |
| TOVARITX | 14 | 10 | 2 | 2 | 52 | 34 | 22 |
| FRANCISCANERR | 14 | 8 | 1 | 5 | 68 | 47 | 17 |
| LASO ARREGI | 14 | 8 | 1 | 5 | 52 | 45 | 17 |
| NUEVO TABERNA | 14 | 6 | 2 | 6 | 35 | 39 | 14 |
| KRISKIBALDA | 14 | 5 | 3 | 6 | 50 | 47 | 13 |
| GURE LEKU | 14 | 5 | 2 | 7 | 44 | 54 | 12 |
| SOLANO 7 MARES | 14 | 5 | 2 | 7 | 55 | 70 | 12 |
| LOS DIMY | 14 | 3 | 5 | 6 | 38 | 39 | 11 |
| MACCABI DE LEV. | 14 | 4 | 2 | 8 | 36 | 52 | 10 |
| BODISCA | 14 | 2 | 1 | 11 | 27 | 74 | 5 |
| ILUNA TABERNA | 14 | 2 | 1 | 11 | 29 | 91 | 5 |
| EZKINAKO HONTZAK | 14 | 1 | 0 | 13 | 23 | 85 | 2 |
| KOAK LAIT | 14 | 1 | 0 | 13 | 22 | 53 | 2 |
| ELISABETH | 14 | 0 | 0 | 14 | 28 | 79 | 0 |

BIONA



Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa berria:
Kanpatorpea, 2
(Parrokia ondoan)
ETORRI IKUSTERA!

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

M

MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria
Arrisku gerentea
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5^a-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!

RUTH GATZAGA



• Eguneko menua
• Asteburuetan menu berezia
• Paregabeko karta

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE



Azken jardunaldietan beti izan dugu 10 gol edo gehiago sartu izan duen talderen bat. Ez, ordea, azken jardunaldian. Hala ere, gol asko izan da. Alpen Krausser - Ganbelas partidua 6-5 amaitu zen, emozioz gainezka. Krausserrak 4-0 hasi ziren, baina besteek berdindu egin zuten gero emaitza, azkenean Alpen nagusitu arte.

BELARRIRA

◆ Galdutako kamiseta.

Zaldibarren galdutako kamiseta bat agertu dela esan digute. Kamiseta laranja kolorekoa da eta marra beltzak dauzka. Robei markakoa da, 7 tailakoa. Galdu duenak telefono honetara egin dezake dei: 771168.

◆ Giltzak eta karterak.

Baina ez omen da kamiseta hori Zaldibarren galdu den gauza bakarra. Denboraldi hasieratik, gauza mordoxka bat azaldu da, eta han joan dira pilotzen, Zaldibarko baloien poltsan. Ia hasieratik giltza joko bat dago, adibidez, baita kartera bat eta jertseren bat ere. Inork faltan bota baditu, poltsan begiratu dezala.

◆ **Ehun golak.** Zulus izan zen 100 golen marka gainditzen lehena, baina dagoeneko Argi Ibilikoak aurretik jarri zaizkie, 105 golekin. Ez dago gaizki markatxo hori. Kontrako emaitzetan, Corinto Tabernak 101 ditu aurka, eta oraindik jasan beharko dituztenak!

EMAITZAK

A TALDEA

Resakas 8 - Whiskeria Linde 3
Jwy Juliwer 3 - Suministros Ugarte 4
Fraguel Gol 4 - Uglys Txinato 9
Etxe Mobiliario 3 - Zotz 4
Berango Sukaldeak 1 - Trikiti 2
Auf dem Koffer 1 - Sokoakoak 1
Anbotoste KT 1 - Koxkas 1
Alla Kuidaus 0 - Ikatz 5
Arlutz 3 - Euskal Indarra 3
Bayern Lenitz 1 - Bizkorak Avenida Tab. 6

B TALDEA

Leintz Garagardotegia 7 - Tronkoteak 3
Irati STS 2 - Notxingan Florest 2
Fancy Bois 2 - Ooole 8
Diego Antonio 1 - Zuloak 3
Bukanak 3 - Ojo Avisore 1
Atxanta ke te merece 0 - Monterrey Zubi Bel 3
Argi Ibili 9 - Kopyprest 4
Alpen Krausser 6 - Ganbelas 5
Arrasate Kirolak 1 - Excavaciones Lete 3
Betrayner 1 - Danok Lagun 2

C TALDEA

Mikelos 4 - Potrosorri 3
Los Dalton 6 - MZK Ganbelas 2
Kirten Tropel 1 - Pepelus 1
Hirei 8 - Sibilius Rover 2
Fosforos 2 - Nabarros 3
Txoko Taberna 2 - Motz 7
Arrasate Kristaldegia 3 - Los Heredia 0
Adelaida Haizea 2 - Leya 4
Corinto Taberna 3 - Kakajauri 6
Borrocn Roll 2 - Foto Imagen 4

D TALDEA

Maccabi de Levantar 2 - Tuttifrutti 7
Laso Arregi 2 - Revolution Rock 6
Kriskibalda 2 - Tovarixtx 4
Franciscanerr 3 - Zulus 3
Elisabeth 1 - Solano 7 Mares 3
Bodisca 2 - Potroak Lorategi 3
Iluna Taberna 1 - Los Dimy 3
Nuevo Taberna 3 - Gure Leku 3
Carbueros 8 - Ezkiñako Hontzak 0

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

EPELDE

argazki denda


Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

**I
R
T
I
TABERNA**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

TXOKO TABERNA
*Eure berezitasunak pintxo
eta mokau gozoak*

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE



Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 29

Zaldibar

- 08.50 Elisabeth - Potroak Lorategi
- 10.00 Carbuos - Tuttifrutti
- 11.00 Maccabi de levantar - Revolution Rock
- 12.00 Los Dalton - Pepelus
- 13.00 Kriskibalda - Zulus
- 14.00 Bayern Lenitz - Whiskeria Linde
- 15.00 Anbotoste KT - Ikatz
- 16.00 Auf dem Koffer - Koxkas
- 17.00 Mikelos - MZK Ganbelas
- 18.00 Adelaida Haizea - Kakajauri
- 19.00 Argi Ibili - Ganbelas

Iturripe A

- 10.00 Fancy Bois - Zuloak
- 11.00 Resakas - Suministros Ugarte
- 12.00 Fraguol Gol - Zotz
- 13.00 Atxanta ke te merece - Kopyprest
- 15.00 Alla Kuidaus - Euskal Indarra
- 16.00 Betrayer - Tronkoteak
- 17.00 Txoko Taberna - Los Heredia
- 18.00 Bodisca - Los Dimy

Iturripe B

- 11.00 Alpen Krausser - Excavaciones Lete
- 12.00 Fosforos - Motz
- 13.00 Franciscanerr - Solano 7 Mares
- 15.00 Corinto Taberna - Foto Imagen
- 16.00 Hirei - Nabarro
- 17.00 Nuevo Taberna - Ezkiñako Hontzak
- 18.00 Kirten Tropel - Sibilius Rover

Igandea 30

Zaldibar

- 08.50 Diego Antonio - Ojo Avisore
- 10.00 Arrasate Kirolak - Danok Lagun
- 11.00 Leintz Garagardotegia - Notxingan Florest
- 12.00 Jey Juliwer - Uglys Txinato
- 13.00 Berango Sukaldeak - Sokoakoak

Iturripe A

- 10.00 Laso Arregi - Tovarixtx
- 11.00 Arlutz - Bizkorak Avenida Taberna
- 12.00 Irati STS - Ooole
- 13.00 Arrasate Kristaldegia - Leya

Iturripe B

- 10.00 Bukanak - Monterrey Zubi Belk
- 11.00 Borrockn Roll - Potrosorri
- 12.00 Etxe Mobiliario - Trikiti
- 13.00 AC Surcos - Gure Leku



Bi inpugnazio baztertu dituzte antolatzaileek

Aurreko asteburuko emaitzak dantzan ibili dira astean zehar, astearte-an antolatzaileen komiteak bi inpugnazioren inguruan erabaki zuen arte. B taldeko Betrayer-Danok Lagun (1-2) eta C taldeko Fosforos-Nabarro (2-3) partiduak inpugnatu egin zituzten talde galtzaileek, baina alegazioak funtsik gabeak zirela ikusirik, emaitzak mantentzea erabaki dute antolatzaileek.

Bi kasuetan, motibo berbera alegatu zuten Betrayer eta Fosforosek: aurkako taldean izenik eman gabeko jokalariren bat ari zela. Itxuraz, gutxi aritzen diren jokalaria azaldu ziren, baina izenak zerrendetan begiratu dituzte eta ondo daudela ikusi da.

Fosforos-Nabarro partiduaren kasuan, inpugnazioa Nabarroreko atezain berriagatik izan zen. Joan den astean esaten genuenez, lesio latza izan zuen Nabarroreko portero titularrak, eta orain ordezkoa estreinatuta da. Oso ondo aritu zen gainera, geldialdi bikainak egin zituen, eta horrek Fosforosekoen susmoak bizitu egin zituen. Hala ere, atezain berria egoki alineatuta zegoen.

Badirudi alineazio desegokiengatik inpugnazio hauen "moda" Ganbelas eta MZK Ganbelas taldeen artean duela aste batzuk gertatutako jokalar aldaketagatik piztu dela, orduan inpugnazioak aurrera egin zuen eta.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Meatzerrekako Sara Zahar baserrian bizi dira langile nafarrak.

Epeleko errepidea egiten Lan-indar nafarra

Maria Agirre

Hasi Kataiden eta Kanpazarreraino doan errepideko obra egiten daude hainbat langile nafar. Baztan ingurukoak dira, eta jakina, etxea urruti geratu zaie. Horregatik Meatzerreka auzoan dagoen Sara baserria alokatu zuten eta euren beharretara moldatu. Orain baserria baino, kanpamendua dirudi inguruak.

Eguna zabaldu orduko, zazpiak inguru, sukaldariak diana jotzen du. Gela handi batetan lo egiten duten berrogeitabi gizonak nagiak atera

eta euren ohea txukundu ostean, lanari ekiteko prestatzen dira. Zuzenean Epeleko errepidera joaten dira, bertantxe zain baitauzkate makinak. Eta sukaldaria eta laguntzailea ere zuzenean sukaldera joaten dira langileentzat hamarretakoa prestatzera. Lana gogorra da, beraz ondo jan beharra dago. Bederatziak ingururako Jesus Descarga sukaldariak dozenaka arraultzetako tortilak egiten ditu eta Mikel Goñi laguntzaileak langileei banatzen dizkie. Bitartean, garbitasunaz arduratzen dena berrogeitabi oheak egiten hasten da.

ETXEOANDREA ERE GOIZ

Ordurako, Mari Kruz Vi-

teri 79 urtetako amona ere jeiki da. Mari Kruz aldameanean bizi da, Sara Zahar baserrian. Urte dexente pasa dira baserri alboan zuten merenderoa itxi zutenetik eta etxea hutsik zegoenez, Epeleko langileek obra bukatu bitartean bertan bizi izateko alokatu zioten. Tabernan oso gustorlan egindakoa da M. Kruz, nahiz eta oso gogorra ere bazela aitortu. Orain, berriz, nahikoa lan dauka bideko obrak direla eta baserrira sartzen zaion hauts pila kentzen. "Egunero ibiltzen naiz trapuaz hara eta hona, baina ez dago etxea garbi edukitzeko modurik. Hautsa ez bada, lokotsara, leihorik ere ezin dut zabaldu". Gainera telefonista lanetan ere ibiltzen da M.

Kruz. Telefono dei asko izaten da Sara baserrian, beraz, errekadu batzuk berak jasotzen ditu. Etxe inguruan dagoen joan etorriaz, M. Kruzek ez du aspertzeko astirik, nahiz eta bere bizimodua egitea gustatzen zaiola aitortu. Hori bai, oso ondo zainduta dagoela dio eta horregatik, seme-alabak askotan bisitatzen duten arren, bakarrik bizi da baserrian: "seme-alabek esaten didate ez zaiela ondo pentsetan ni bakarrik egotea. Baina nik esaten diet: berrogei gizon aldameanean edukita, noiz egongo naiz hobeto zainduta?"

LEKU ASKOTAN IBILITAKOAK

Mota honetako obratan eta



Ordubata l'erdietan bazkaldu egiten dute.

leku desberdinetan lan egiten ohituta daude Mariezkurrena enpresako langileak. Enpresa nafar honek Epele bezelako bideak egin izan ditu beti. Valentzia, Zaragoza eta Frantzia aldean lanean izan dira eta badago enpresa honentzat 20 urte lanean denik ere. "Toki desberdinak ezagutzeko aukera dugu behintzat" diosku bertako langile batek.

Etiket urruti lan egin behar horretara eginda daude, eta Sara baserriaz egin duten bezela, lan egin behar duten tokian bizi izateko aterperen bat aurkitzen saiatzen dira. Oraingoan zorte handia izan dute, merendero izandakoak sukalde galanta eta berrogei ohe sartzeko aukerako ganbara ederra baitzituen. Honez gain, etxe ingurua euren beharretara moldatu dute. Kanpoan komunak eta dutxak jarri dituzte eta parean, ofizina. Erabateko kanpamendu itxura hartu du Sara baserriak. Guzti hori gutxi balitz, 80 oiolorentzako oilategi txukuna eta txerrikorta ere eraiki dituzte. "Berrogei gizonen sabela betetzeko, eta egunean

egiten diren hiru jatorduetarako, janaria behar da, eta lana ondo egiteko ganoraz jatea", dio sukaldariak. Zazpi txerri hasi zituzten eta dagoeneko bi baino ez zaizkie geratzen. Obra bukatzen dutenerako, berriz, txerrikorta hutsik egongo da.

URTEA BETE DUTE

Joan zen urteko abenduan hasi ziren 80 langile Epele-Kanpanzar errepidea egiten. Orain kopuru hori gutxitu egin da eta berrogeitamarrek urtebete daramate hemen; apirilera arte, obra amaitu arte, ez dira hemendik joango. Lanaren %70a makinek egiten badute ere, eguraldi txarra dagoenean lan baldintzak asko okertzen dira. Hori dela eta udaberrira arte, nafarrak Arrasaten geratzeko dira. Baina ez dira kexu, noizean behin, zinemara joateko edo, herrira jeisten baitira eta gustoko dute. "Arazotxo bat bakarra dugu -dio sukaldariaren laguntzailak- hemengo euskara ulertzea zaila egiten zaigu".


Arrasate gustoko duten arren ez zaie gustatzen, aste-

bukaera hemen emateko beste. Zapatua heltzean, eguerdi aldera, bakoitzak bere herrira egiten du hanka. Batzuk ezkontuta daude eta emaztea zein seme-alabak ikusteko desiatzen egoten dira, beste batzuk berriz, neska-laguna botatzen dute faltan. Izan ere, eta hainbeste gizon batera bizi izanda, zerbañ faltan botatzen badute, emakumeen presentzia da.

Arrasaldeko seiak dira, negua da eta eguneko argia goiz joaten denez, ordu horretarako bertan behera uzten dute langileek lana. Sara Zahar baserriera joango direnek, zazpiak inguruan afaria izango dute mahai gainean. Afalondoan telebista ikusi zerbañ interesgarria badago, bestela musean jokatu eta bizkor ohera. M. Kruz ere goiz oheratzen da, konforme baina penatxo batekin: Lehen esnatzean eta eguna garbia bazen, Mendiolako eliza ikusten zuen, orain berriz, aurrekaldean jarri dioten bideak izkutatatu egiten dio Mendiola.

A

**stelehen
goizean hasi
eta larunbat
eguerdian
bukatzen dute
asteko lana.**



M. Kruz Viterik pozik alokatu zien baserria.

● *Ramon Gomez*

Pobreziari stop!

**Krisiaren eta pobrezia-
ren aurkako Arrasateko
taldea, antolatzen ari
den pertsona-multzo bat
da. Gizartean bazterke-
ta eta pobrezia egoerak
hazi besterik ez direla
egiten ikusita, konpro-
mezua hartzeko garaia
iritsi dela uste dute. Ra-
mon Gomez, Fagorreko
kooperatibista, talde ho-
netako partaidea da eta
berarekin hitz egiteko
aukera izan dugu greba
orokorrak markatutako
aste honetan.**

— Nola jaio da zuen tal-
dea?

— Berez sortu da, ekimen
herritarra da. Oso jende arrun-
ta gara, kalekoa, ez gara adi-
tuak. Pobrezia egoerak hedat-
zen ikusi ditugu, eta horrek
batu gaitu. Zein etxetan ez
dago 20 urtetik gorako seme-
ren bat, lanik gabe, sekula iza-
teke gainera, edo baldin badu,
gero eta prekarioagoa. Orain
lana dugunok aberatsak gara,
eta ez dutenak pobreak. Neu-
rri berriekin 3. mailako herri-
tar bihurtuko dira, eta egoera
estrukturala izango da hori.
Horren aurrean, zera esaten
dute batzuk: "Ez gara ezer
egiteko gauza izango, ez gau-
de prestatuta, ez dakigu, eta


badaude gu baino prestatua-
goak". Baina, dirudienez,
prestatuagoak ez dira sufrit-
zen ari, eta horregatik, guk
geuk egin beharko dugu zer-
bait, eta horrela sortu da hau,
oihu isil moduko hau. Na-
hikoa dela esateko, zerbait
egin behar dela esateko.

— Ze ekintza duzue
buruan?

— Lehenbizi, informazioa
bildu behar dugu errolda bat
egiteko, errolda soziala, Arra-
sateko egoera soziala jakite-
ko. Gero, eztabaida hasiko
dugu egoera honen arrazoiak
arakatzeko, eta jasotako da-
tuak ezagutzera emango ditu-
gu, hileko 2. eta 4. ostegu-
nean Portaloian 6.30etan egin-
go ditugun kontzentrazioetan.
Aldi berean, laguntza beha-
rrean daudenei lagundu egin-
go diegu informazioarekin,
eta langabetuak antolatzen
saiatuko gara lan hori eurek
egin dezaten. Etengabeko pro-
testa-oihu isila izan nahi dugu,
injustizia sozialaren aurka, eta
pertsona guztiei egiten diegu
dei honetan parte hartzera.

— Zer iruditzen zaizue aste
honetako greba?

— Gaur egunean dugun
arazoetako bat indibidualta-
suna da. "Nork bere larrua



salba dezala". Eta horrek ha-
lako pasibitate batera gara-
matza, ez du arazoak konpon-
tzen laguntzen, alderantziz
baizik. Argi dago, beraz, pa-
sibitatearen aurkako mugim-
endu guztietan egongo ga-
rela gu. Eta greba pasibitate-
aren aurkako ekintza argia da.

— Agiri batean esan du-
zue, elkartasuna da krisi-
rako giltza.

— Gu ez gara teknikoak:
kontatzen digutenaren ondo-
rioak ikusten ditugu. Pro-
duktibitate igoerak ikusten
ditugu, lehiakidetasuna esaten
zaion enpresen arteko borroka
hori, eta zera somatzen dugu:
automatikoki langabezia
dakartela horiek. Lehiakide-
tasuna egoera hobetzeko ba-
litz, ulertuko genuke, baina

bere ondorioak besterik ez
ditugu ikusten: langabezia eta
langabezia. Diotenez, horrela
enpresek irautea lortzen da,
baina ez dira pertsonak kon-
tuan hartzen, eta gizartea per-
tsonok osatzen dugu. Aberas-
tasunaren eta lanaren banake-
ta izan behar direla uste dugu
arazo hauentzako konponbi-
dea.

— Zu kooperatibista zara.
Esan izan den bezala, koope-
ratibak sasoi onetako ongiza-
te irlak dira oraindik?

— Enpresa sisteman,
kooperatibak ez dira irla bat.
Merkatuaren parte dira, eta
merkatuko kontraesanak hor
ere ikusten dira. Sasoi onak
edo, behintzat, amaitu ziren;
eta kanpoko arazoak, barruan
ere ageri dira. Sortzaileen
pentsamolde kooperatibista
hura ere, alderdi sozialetik eta,
badirudi bidean geratzen ari
dela batzuentzat. Baina, aldi
berean, kooperatibetako lan-
gileen aldetik auto-defentsa
mugimendu bat dago, eta ges-
tio alorrean sentsibilizazioa
eragiten du horrek.

● **"Pasibitateak ez du arazoak
konpontzen laguntzen. Eta greba
pasibitatearen aurkako ekintza da"**



Beteranoen eta gaztetxoan artean zubi egiten duen taldea ligan polito ari da jokatzen.

Rugby taldea rugbyzale gazteen eta bazkideen bila

Rugbyko Euskal Ligako 2. mailan, bi partidu falta zaizkio Arrasateri, lehen fasea amaitzeko. Orain arte, nahiko paper polita egin dute, eta hortxe daude, lidergoagatik borrokan. Asteburuan, erraztasun handiz irabazi ziotte Gautxori talde bilbotarari (53-0). Joko ikusgarria eskaini zuten Arrasateko mutilek Garagartzan, bai erakutsitako teknigatik eta bai egindako entsaio ugarientzat.

Lehiaketetatik aparte, rugby-zaletasuna zabaltzeko asmoz, kanpaina bati ekin dio Arrasateko Rugby Taldeak (ART). Neska eta mutil gazteak erakarri nahi dituzte kirol honetara, eta horretarako eskolaz eskola hi-

tzaldi sorta bat eskainiko dute, eta kartelak ere jarriko dituzte kaleetan.

Hitzaldiak Joni Ezkurdia eta Patxi Gorosabelen eskutik etorriko dira, eta bideo batez hornituko dituzte. Rugbyaren nondik norakoak azaltzen saiatuko dira, ez arau eta teknikaren aldetik bakarrik, baita garapen pertsonalerako dakarrenegatik ere. Rugbya, itxuraz gogorra izan arren ere, kiroltasunaren eredu da beste kirol askorekin gonbaratu ezke-ro. Hitzaldiekin batera, kartelak banatuko dituzte herrian zehar. Gainera, interesatuta dagoen edozein gazte (neskak ere bai, talde gazte-gazte bat hor ari da eta jo ta sua), zuzeneko infor-

mazioa nahi badu, asteartetik ostiralera pasa daiteke kiroldegitik, arratsaldeko 7.30etan.

Rugbylari berriak lortzeko kanpainaz gain, bazkide laguntzaileak lortzeko hasi du ARTk. Batetik, bazkide indibidualak lortu nahi dituzte, eta enpresa eta merkataritza alorreko bazkide babesleak, bestetik. Txartel pertsonalak 1.000 PTA balio du, eta zozketa baterako (mountain-bike bat eta kanpin-denda bat) zerbaki bat dakar.

Beste arlo batean, maiztzean ohizkoa izaten den gazte eta beteranoen arteko partidua prestatzeko, aste honetan biltzar bat izan dute rugbylari beteranoekin.

LABURRAK

Aritz Arrietaren domina igerian

Aritz Arrietak, 16 urteko igerilariak, Gipuzkoako txapelketatik urrezko domina ekarri zuen Arrasatera asteburuan. Tolosan izan zen Gipuzkoako Txapelketa, eta Arrietak bi frogatan hartu zuen parte, jubenilen kategorian. 100 metro libreetan 10. izan zen, baina 50 metro libreetan lehena. Arrasateko Igerilari Taldetik beste bi ordezkari ere joan ziren Tolosako frogetara. Ibai Orruñok (14 urte) kadete mailako 50 metroetan egin zuen igerian, eta 13. geratu zen. Ane Olarte (12 urte), infantil mailako 100 libreetan aritu zen, eta 14. postua eskuratu zuen. Asteburu honetan Euskadiko Txapelketa da, eta Aritz bertan izango da, hiru frogatan igeri egiteko.

Partiduari buelta


Eskubaloian, Arrasate Kirolak-ek nasai-nasai gainditu zuen Loiola kologista (26-15), baina partiduan egon zen gorabeherarik: txarto hasi zen Arrasate, eta Loiola 6-8 jarri zen. Hala ere, buelta eman zioten partiduari eta markagailua 18-8 jarri arte ez zuten atsedetik hartu arrasatearrak. Ondoren, dena primeran. Saskibaloian, emaitza txarrak ahaztuta, Arrasatek ederto irabazi zion Musakolan Cantabria talde errioxarriari (91-76).

**Monte
taberna**

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



**Umeentzako
moda**

Ferrerias kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

PENALTIAK

● **Duela egun batzuk jokatuak Gipuzkoako Atletismo Txapelketan (pista estalian), zilarrezko bi domina eta brontzezko bat lortu zuten Arrasate Atletiko Taldeko kirolariek (guztira 10 joan ziren). 200 metrotan, Aitor Arnaiz 2. izan zen, 22.61eko denborarekin. 800 metrotan, Gabi Saavedra 2. (57.32); eta 3.000 metrotan, Jose Ramon Petreñas 3. (8.59.2).**

● **Besaide mendizale elkarteak bere urteroko biltzarra egin zuen duela gutxi, zuzendaritza berritzeko. Junta berriko 14 partaideak aukeratzeko ez zen arazorik izan, baina lehendakari kargua hutsik geratu zen.**

Mondra: arbitro, zigor eta lesioen presiopean

Hernaniren aurka 0-1 galdu zuen Mondrak igandean Atxabalpen (Hernaniren gola, gainera, Madinaren auto-gola izan zen). Taldea minimoetan zegoen, nolabait esateko, lau lesionatu eta hiru jokalaririk zigortuekin, eta hori gutxi ez balitz, hurrengorako okerrago egon liteke, aste honetan federazioak hiru jokalaririk gehiagori zigorra ezar diezaietelako.

Gauzak honela, datorren iganderako 11 jokalaririk (atezain suplentea barne, Josu Urzelai izan daitekeelako zigortuetako bat) izan ditzake prest Mondrak, ez gehiago. Arbitroaren akta dago arazoaren oinarrian: oso epaile txarra, penagarria, tokatu zitzaion Mondrari igandean.

Azken unean, Carrillo



Ondarroako Aurreraren aurka plantila minimoa izango du Mondrak.

goleruntz zihoala, falta ikaragarria egin zion hernanier batek, baina arbitroa mutu, ezer ikusi ez balu legez. Handik gutxira, partidua amaitzean, Mondrako jokalariek, haserre, ahotsa altxatu zioten arbitroari, irainik gabe,

baina hala ere aktan geratu da haserre, eta zigorra horren arabera zen erabakitzeakoa. Mondrako arduradunek erreklamatzeko asmoa zuten, baina lerro hauek idazterakoan ez dakigu federazioaren erabakia.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 0 - Hernani 1
Emakumezkoak: Ostadar 0 - Mondra 2
2. regionala: Zestoa2 - Mondra 5
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 3 - Union Txiki 2
Jub., 2. maila: Segura 4 - Arrasate 1
Kadeteak, 1. maila: Mutriku 2 - Arrasate 0
Kadeteak, 2. maila: Urki 4 - Arrasate 0
Haurrak: Ordizia 1 - Arrasate 1
Hurrengoak:
3. maila: Aurrera - Mondra. Ondarroa, igan., 16.00

Saskibaloia

2. maila: Arrasate 91 - Cantabria 76
Jub. mutilak: Xalbador 79 - Arrasate A 75
Arrasate B 44 - Eskoriatza 50
Jub. neskak: Ondartza 44 - Patterncam 28
Kad., mutilak: Juven 66 - Loramendi Kirolak 76
Etxadi 49 - Arrasate 39

Rugby

Euskal liga, 2. m.: Arrasate 53 - Gautxori 0
Jubenilak: Zarautz 17 - Arrasate 5
Hurrengoak:
Euskal liga, 2. m.: Bizkaia - Arrasate. Aree-ta, larunbata.

Jubenilak: Arrasate - Gaztedi. Garagartza, larunbata.

Neskak: Durango - Arrasate. Larunbata.

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Arrasate 26 - Loiola 15
2. eskualdekoa: Arrasate 13 - Zarautz 17
Jubenilak: Arrasate 21 - Ordizia 22
Hurrengoak:
1. eskualdekoa: Aloña Mendi - Arrasate. Oñati, lar. 17.30.

Pilota

Euskal liga:
Jubenil, banaka: Zaramaga 18 - Arrasate 3

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

Hilbera kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE


PEUGEOT - TALBOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Altxibar (Musakola)

Musakolan, herrixen sartuixeran bariante hasierako zubi onduen Altxibarrerako bidie hartzen da. Errekiaz ezkerrekaldetik, gaintxo baten, Arbe basarrixe baino zertxobaitt beherau agiri da.

Gaur bertan bizi dienak Pedro Agiriano Urrutia, bertako semie, Maria Altuna Arana, bere andrie eta Joxantonio eta Edurne euren seme-alabak die. Mari Aramaixoko Eguzkierripako Maskaño basarrikue da.

Pedro ta Mari 1961ien ezkondu zien eta bodako banketie Toki-onan ein euen. Biejien Madrilera fan zien eta han euki euen telebisiñue leleneko aldiz ikusteko aukerie.



Etxie Antonio Agirianok, Pedron aittek, erosi eben. Antonio Untzillako Azpiko basarriko semie zan. Ama, Pedron ama, Saburdi Zaha-

rreko alabie. Etxie erostie 25.000 pezeta kosta jakon eta 1926xen Kataideko Jose Mari Arregiri erosi eutsen.

Pedro 1947xen Zerrajeran lanien hasi zan. Astien 74,5 pezeta irabazten zittuen.

Han 43 urte emon zittuen lanien, horreaz batera basarriko labrantzie manten-duaz.

Pedron ama, Frantziska Urrutia, hasi zan Musakolako kalera etorri eta etxeko jenerue saltzen. Zerregin horri Marik jarraitu dutso.

Ondo akordetan da Pedro bere gazte denporako kontu askokin, orduen erromerixak eukien inportantzie jentien arteko hartu-emonetarako eta ezaupiderako.

Gomutan dauko zelan pasetan zien tolosarrak euren etxepetik oinez Urkiolara bidien. Famatuek zien Landako erromerixie, Otala Zelaikue eta Kanpazarkue be.



Marga Romariz Villar
ETXE-ANDIko metrea

Oharra: Galdetze hutsagatik andregaiak oparia jasoko du

Etxe-Andi

— **Marga, zegatik ETXE—ANDIra?**

— Inguru zoragarri ezkontza, bataio edo edozein ospakizun giro goxoan eta eskatutako prezioan egiteko aukera eskaintzen dugulako.

Etorri lasai, zuek esan prezioa eta guk menua.

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU

Anna de Codorniu



Z E R N A H I A G O ?

Esperanza Herrero Martin

Garbitzailea



- **Non jaio zinen?** Ciudad Rodrigon, Salamankan, baina berehala joan nintzen Bartzelonara bizi izatera
- **Zer egiten zenuen Bartzelonan?** 10 urterekin hasi nintzen garbitzaile lanetan eta 23 bete nituenean ezkondu eta Arrasatera etorri nintzen.
- **Zergatik etorri zinen Arrasatera?** Nire senarrak lana hemen aurkitu zuelako.
- **Arrasate Press eta ATBz gain, zein beste lokal garbitzen dituzu?** Azoka, Kontsumitzailearen bulegoa, IMI, Lizarra Elkarte, Mankomunidadeko lokalak eta Gazte Bulegoa.
- **Oso zikinak gara?** Egia esan, Arrasate Pressekoak ez baina ATBkoak nahiko zikinak dira: zigarroz beteta egoten da lurra.
- **Beste lanen bat egin duzu inoiz?** Bai, Fagorreko kataian egiten nuen lan.
- **Zer egiten duzu zure denbora librean?** Kortinak josi, erropak egin edo kozinatu.
- **Telebistan zer ikusten duzu?** Berriak eta Melrose Place.
- **Ilea tintatzen duzu?** Bai.
- **Zerk haserre arazten zaitu?** Gezurrek; norbaitek gezurren bat esateak.
- **Zein bazkari prestatzen duzu ondoen?** "Brazo de gitano de patata" izeneko platera.
- **Zerk beldurtzen zaitu?** Arratoiek.
- **Bizitzan atzera egingo bazenu, zer aldatuko zenuke?** Ezer ere ez, oso bizitza pozgarria izan dut.
- **Zein izan da egin dizuten azken oparia?** ATBko langileek gabonetan oparitu zidaten txanpana. Asko poztu ninduen!
- **Gustoko duzu zure lana?** Bai, asko, eta ez dit batere lotsarik ematen hori esatea.

BERTSOAK

Joxe Manuel Arriolari

1

Gizaldi honen hasieratik hamaseigarren urtean, Joxe Manuel munduratu zen Ekainan hamabostean; "Goikoetxe" ko baserri zaharren Arbil mendi babesean, Debako itxas kresal haizeak laztantzen duen ertzean.

2

Mutil koxkortu bezain aguro Deban ikastola baten, lau erregla ta irakurtzeaz Kristau dotriña ikasten, tarteka berriz baserri lanak sarri zezenak domatzen, behi zital haiek baino hobeto zekien ardiak zaintzen.

3

Amaitutzean gaurko E.G.B. zen antzerako karrera, hogei urtekin guda zela ta doa Marruekosera, bi hilabete barru Burgete ta Aragoiko frentera, hango zauriak osatutzean heltzen da Arrasatera.

PATXI GOIKOLEA




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Mikel Markez

“Euskal Herrian ‘musika-mestizajea’ ari da gertatzen



Mikel Markez 22 urteko errenteriarra da. AEDko Gazte Mobidiek antolatutako Kantu Zahar ikastaroko “irakaslea” da. Gaur egun gazteek entzuten duten musika dibertsitateaz harrituta dago.

— Nondik datorkizu musikarekiko grina?

— Egia esan, nire familian ez dago musikaririk, beno, banuen birraitona bat txistua jotzen zuena baina ez dut uste musikarekiko zaletasuna harengandik datorkidanik. Nire etxean betidanik izan dut kitarra bat eta umetatik aritzen nintzen zerbait jotzen. Serioago hartu nuen 16 urte bete nituenean, beste talde batzuen abestiak jotzen hasi nintzen. Gero, nire kantu

propioak egiten hasi nintzen.

— Abestiak konposatzeaz gain, egiten duzu beste era bateko lanik?

— Orain ez, baina lehen bai. Denetarik egin izan dut: Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailarentzako inkestek egiten nituen, euske-

rako eta matematikako klaseak ematen nizkien umeei... Denetarik egin izan dut orain arte. Orain bizitza aurrera atera nahian ari naiz, baina musikarekin erlazionatutako lanak eginez: Ikastaroak, kantaldiak eta horrelakoak.

— Zer esaten dizu jendeak duzun ahots goxo horri buruz?

— Zer esaten didaten? Ba, oraintxe bertan, nire foniatrak esaten dit asko zaindu behar dudala, azken bi urte hauetan sekulako egurra eman diodalako, eta

orain, ahotsa hezitzen ari naiz.

— Nola hezitzen duzu?

— Arnasa nola hartu behar dudan erakusten ari zait foniatra, diafragma eta soka bokalak nola erabili behar ditudan ikasten ere ari naiz.

— Musika heavyak eta rockak duen arrakasta ikusirik, nola mantentzen da zu bezalako kantari bat musika-merkatuan?

— Hori da ez dakidana. Ni nire kantu propioak egiten hasi nintzanean eta nire estilo propioa lantzen hasi nintzanean, ez nuen uste “Top Gaztea” eta era horretako lista komertziale-tan sartuko nintzenik, baina, behin zerrenda horietan sartuz gero, zutaz interesatzen hasten da jendea, nahiz eta Su Ta Gar edo Negu Gorriak taldeak ere gustoko izan. Sekulako sorpresa hartu nuen kontzertu bat ematen ari nintzela Su Ta Gar eta E.H. Sukarraren kamisetak zeramatzen jendea niri entzutera etorri zela ikustean. Duela hamar urte, ezin zen ulertu pertso-

na bati Kortatu gustatzea eta era berean, Benito Lertxundi ere gustoko izatea, baina gaur egun, gazteak aldatu egin dira; Sorotan Bele taldea agertu da eta jende askori gustatzen zaio. Halako “mestizaje musikal” bat gertatzen ari dela uste dut eta zoragarria da.

— Dena dela, musika zerrendatan egotea komeni zaizu, ezta?

— Beno, niri baino gehiago, nire disketxeari komeni zaio, ELKARI, eta noski, disketxeari komeni bazaio, teorian niri ere komeni zait abestiak grabatzeko aukera gehiago ematen didatelako. Baina niri bost axola zait, musika zerrenda horietatik kanpo geratzen banaiz, ez da nire asmoa. Orain nire bigarren diska ateratzen ari naiz eta ez da batera komertziala; ez naiz gupil horretan eroriko.

— Zer musika entzuten duzu zuk?


— Denetarik. Azken aldian musika klasiko dextente entzuten dut. XIX. mendearen bukaerara arteko musikoetaraino iristen naiz. Hortik aurrera, nahiko musika modernoa egiten hasi ziren. Stravinsky-raino heltzen naiz baina hortik gora, ez dut ulertzen. Musika dodekafonikoaz etabar ez dut ulertzen.

“Ez naiz sekula musika komertzialaren gurpilean sartuko”

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluk, Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07


LABURRAK

**Rock emanaldia
otsailaren
1ean**

Joni Lasagabarterrek eta Gorka Arregik, duela aste gutxi Udalaiz tabernan emandako rock aktuazioaren ondoren, Haizea tabernan joko dute otsailaren Ingoan. Bide batez, jakin ezazue, bi gazte hauek musika talde bat sortzeko asmotan dabiltzala eta batera bat eta abesle bat bilatzen ari direla. Interesatua egonez gero, dei egin 79 27 27 telefonora.

**“Loramendi”:
Kultur elkarte
berri bat
Aretxabaletan**

Loramendi Ikastola eta Beinke Kultur Elkartearen arteko baturatik, “Loramendi Kultur Elkartea” sortu da. Talde berri honen helburua, Aretxabaleta euskalduntzeko lanak indartzea da. Euskera kalera, lantokira eta leku publikoetara zabaltzeko asmotan, dagoeneko hasi dira talde batzuk lanean: “Tril” emakume taldea, “Berri Zahar” euskaldun berrien taldea, Kultur Taldea, Sentsibilizazio Taldea eta Umeen Taldea. Elkarte honetan, edonor izan daiteke bazkide, lantaldereen baten kide izanda, zuzendaritza Batzordean partaide gisa edo kuota ordainduz.

**Barre algarak ziurtatuak
L'Aigua Antzerki Taldearekin**

Amaia Antzokia berriztu zenetik, etengabeak izan dira bertatik pasa diren bisita kulturalak. Oraingo honetan, Alikanteko antzerki talde baten bisita jasoko dugu, Teatre De L'Aigua izeneko antzerki taldearena hain zuzen ere. Ez da hau antzerki talde honek Arrasatera egiten duen lehen bisita, duela 3 urte, 1990eko martxoan, Arrasaten egon ziren eta “Cogito” antzeulanarekin. zapore ona utzi zuen talde honek ikusleen artean, eta jakin denez, L'Aigua antzerki taldea Arrasatera bueltatzeko gogoaz zebilen.

“Viva la Pepa” antzeulanarekin, sekulako arrakasta lortu dute estatu osoan zehar

joan den urtean egindako giran. “Viva la Pepa” antzezlana, estatuaren funtzionamendu txarra ironizatzen duen obra da.

“JUAN PALOMO”

Oraingo honetan, kontrako gaia jorratzen duen obraz ari dira beste gira bat egiten: “Juan Palomo” izeneko obrarekin. Obra honek, Europaren berreraikitze prozesua kontatzen du, beti, modu komiko batean.

“Juan Palomo”, Alikanteko Teatro Principal-ean estreinatua zen joan den urteko maiatzaren 5ean. Egunkarietako oso kritika ona egin diote antzeulanari, obrak duen ironia eta umorea azpimarratuz beti.

Guztira, 18 lagun dira talde honetan lan egiten dutenak, eszenario gainean, berriz, 5 pertsona besterik ez.

Antzerki talde honetaz esan diren gauzen artean, “antzerki fenomeno arraro baina gustoko bat” dela esaten duen kritika bat dago. Orainarteko antzoki guztietan, txalo eta barre artean agurtu dute publikoa. Ostiralean, urtarrilak 28an izango dira Arrasateko Amaia Antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera 500 PTAtakoa izango da, gazte-txartela dutenentzat berriz, 300 PTAtakoa. Ziur “Juan Palomo” izeneko obrak antzokitik alai irtenaraziko zaituela!

**URRIN
EDARITEGIA****Etxeko janari bereziak**

Urbarri Etorbidea, 22 Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE

**Janaridenda
traspasoan.**Negozioa martxan dago
baina atenditu
ezinagatik utzi
behar dugu.

Tfnoa: 76 52 80



J

oan den asteburuan izan zen mundu guztian zehar Haur Misiolarien eguna, eta hirugarren munduko lurraldeetan bizi diren haurrentzako dirulaguntza batzea egin zuten Elizbarruti ezberdinetan. Arrasaten ere egin zen horrelakorik, eta ez lehenengo aldiz gainera, izan ere, ohitura handia izan da eta horreta-

rako. 1929 edo 30ean ateratako erretratu honetako neskatila-mutikoeke ere Santa Infancia eguna ospatzen zuten, edo beste batzuk esaten zioten moduan, txinitoen eguna. Zentro katolikoak antolatzen zuen, eta guzti hauek bi familiatako umeak dira.

Handiena, ezkerretik eskumara, **Juan Guridi, Ines**

Guridi, Felisa Guridi, Jose Sodupe eta **Kontxi Sodupe**.

Behean, **Ana Guridi, Gloria Guridi, Mari Sodupe, Juli Sodupe** eta **Jesus Sodupe**.

Orduan ume asko ibiltzen zen, denak ere mozorroa jantzita eta itxulapikoa aldean, eskean.

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

RKUZ

Sukaldeak

FAGOR 

Sukalde integratuak

Banatzaile Ofiziala

Mitarte, 3
Tfno-Fax: 77 04 55
ARETXABAETA



ALTZARIAK

ELEKTROGAILUAK

ETXEKO ALTZARIAK
DISEINUA - APAINKETA

TV - BIDEOA - SOINUA
expert  Banatzaile ofiziala

Araba Etorbidea, 20
Tfno - Fax: 79 23 51

Aretxabaeta

Asuncion, 1
Tfnoa: 79 10 97

· ESAERA ZAHARRA ·

*“Ez du goseak
inor biltzen
munduan; ezin
janak biltzen du
jendea”*

· JEROGLIFIKOA ·

Zi

Zi

PRINTZIPIO FILOSOFIOA
— Lehenbizi...

· GURUTZEGRAMA ·

| | | | | | | |
|----|----|----|---|----|----|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | | | | | | |
| 9 | | | | | 10 | |
| 11 | | | | 12 | | 13 |
| | | 14 | | | | |
| 15 | 16 | | | 17 | | |
| 18 | | | | | | |

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. Gutun. 8. Egües, ATBko Berriak aurkezten du. 9. Mortairu. 11. Nasa. 12. (Ald.) Lurrontzi. 14. Argiro. 15. Txinatar buruzagi ohia. 17. Hitz grekoa(3,1416). 18. (Ald.) Gorputz inorganikoa.

Bertikalak 1. Andere. 2. Areto. 3. Kimikan aditua. 4. Udaberri eta udazkenaren artean. 5. Aterpe. 6. Lakrikun. 7. Zamorako ibilgailuetan. 10. Zaren horrek. 13. Tailandiarren lehenengo izena. 16. Galdetzeko partikula.

· HOROSKOPOA ·

Aries Izerdi gehiago botatzea komeni zaizu kilo horiek jeisteko.

Taurus Ile luze horiek moztu, lehoia dirudizu eta.

Gemini Botak handiegiak dituzu, “katu botaduna” dirudizu.

Cancer 94an ere, beti bezela jarraitzen duzu: pobre eta maitasunik gabe.

Leo Noizean behin dutxatuaz gaineko kiratsa uxatuko zenuke.

Virgo Maitasun eskutitzak idazteko habi-dadea falta zaizu.

Libra Neskekin ligatzea nahi izanez gero, aldatu zure estilo pertsonala.

Scorpio Ez da oso aste ona datorkizuna: zorte gabea, maitasun gutxikoa eta aspergarria.

Sagitarious Beste zerbaitetan hasi beharko duzu. Ikasketan behintzat ez duzu etorkizun gehiegirik.

Capricorn Dietan jartzea komenigarria izango litzaizuke.

Aquarius Bihar ez kalera irten, irristatze-ko eta min hartzeko izugarrizko arriskua dauka-zu.

Piscis Berriz gogorarazten dizut ametsak eta errealitatea oso ezberdinak direla.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

· AITOR ELIZARANEN GOMENDIOA ·



Aitorren gomendia ondo etorriko da zer egun datozen akordatzeko. Haratuzte edo ihauterietan mozorrotzera animatu nahi ditu mondrauetarrak, galtzen ari den ohitura dela iruditzen zaio eta. "Jende asko ikusten da mozorrotu barik, eta azken egunetan bada ere, merezi du zerbait prestatzea". Disfrazik politenak etxeko lau trapurekin egiten direnak dira Aitorren ustez, "alokatutakoak nabarmenegiak dira Arrasate baterako". Kolore askoko eguna, giro politikoa da karnabale-takoa, "denok daukagu barruan ume hori..."



- 30 Igandea**
20.00etan
Astebete errep.
20.30etan
Mondragol.
- 31 Astelehena**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Astebete errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Filme Erraldoia: "Excalibur"
- 1 Asteartea**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport errep.
14.05etan
"Excalibur" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan.
22.00etan
Dokumentala: "Automobila-Argazkia"
- 2 Asteazkena**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
ATBketan errep.
14.05etan
Dokumentala errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
Gaeko filma: "Rio Bravo"
- 3 Osteguna**
13.30etan
Berriak
13.35etan
Tertulixan errep.
14.05etan
"Rio Bravo" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Joxerra Gartzia.
22.00etan
Euskal Filma: "Lauaxeta"
- 4 Ostirala**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka errep.
14.05etan
"Lauaxeta" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren eguna: "Nire pony txikiak"

· KOMIKIA ·



VE ECUADOR
Bidaiak
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

HAURTZOAK
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

· SOLUZIOAK ·

JEROGLIKOA
Bizi.
Siam. 16. Al.
lape. 6. Irtirn. 7. Za. 10. Zuk. 13.
Sala. 3. Kimikoa. 4. Uda. 5. Tei.
Bertikalak 1. Emakume. 2.
18. Minerrale.
Suil. 14. Kiar. 15. Mao. 17. Pi.
Mader. 9. Almatz. 11. Kat. 12.
Horizontalak 1. Eskutiz. 8.
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Goi mailako etxebizitza salgai** Arrasateko erdikaldean, 95 m² eta 20 m² sotoa, solarium handia erdi jantzia. Kalitate handiko materialak. Bulego edo antzekotarako oso egokia. Tfnoa: 79 64 50.
- **Errioxako San Vicenten etxebizitza salgai.** 85 m², egongelan beheko sua, jantzita dago. Igerileku, tenis, frontoi eta berdegune askoko urbanizazioan. Prezioa: 12.750.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Garaje salgai.** Jose Luis Iñarran, 20. Tfnoa: 79 36 79.
- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaez deitu Luis.
- **Errioxako Calahorran**, 75m²ko atiko ederra salgai. Eguzki-begia jantzita, goteleduna eta egoera ezinhobean. 15m²ko ganbara eta tras-telekua ere baditu. Herriaren erdigunean dago. Prezioa: 4.500.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Torremolinosen** apartamentu-estudioa salgai. Haundia, herriaren erdikaldean, jantzia, 2 pisua, igogailu, igerilekua, salariuma, atezaina... Prezioa: 3.250.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Torreviejan (Alicanten)**, itsasertzean, 55m²ko apartamendua salgai. 2 logela, egongela, terraza itxia, jantzia, igerilekua ere badu komunitatean. Aukera! Prezioa: 4.950.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Bi oheko logela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.

Lana

- **Pertsona bat behar dut klase partikularrak** emateko REM 1. mailako batentzat. Tfnoa: 79 99 97.
- **Emakumea prest lan egiteko**, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Euskalduna. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun neskak** umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- **Klase partikularrak ematen ditut.** UBI eta EFPra-ino. Dei egin 79 84 75 tfnora goizez eta 79 02 76ra arratsalde. Judith.
- **Lokal komertzial, bulego, etxetako garbiketako** egiteko prest. Tfnoa: 77 09 56. Maribi.
- **OHO zein ingelesezko klase partikularrak** ematen ditut. Tfnoa: 79 45 60. Sonia.
- **Pertsona responsablea behar da** etxeko lanak egiteko Aretxabaletan. Dei egin 79 74 52 tfnora gaueko 8etatik aurrera.
- **Frantsesezko klaseak** hartuko nituzke. Dei egin 79 69 80 tfnora.
- **Kimikan lizentziatuak** OHO, BBB eta UBIko matematika, fisika eta Kimikakazko klaseak emango lituzke. Tfnoa: 79 42 97. Belen.
- **Edozein motatako lanak** garbira pasatzen dizut ordenagailuz. Dei egin 79 77 59 tfnora eta Fernandez galdetu.
- **Neska bat asteburuetan** edozein lan egiteko prest. Arrasaten edo inguruan. Tfnoa: 77 06 82.
- **Frantsesezko klaseak** hartuko nituzke. Tfnoa: 79 29 80.

Salerosketak

- **"Barco" ohea salgai.** Tfnoa: 79 30 90
- **Komoda bat salgai.** Tfnoa: 79 35 21.
- **Eski alpinoko botak** salduko nituzke. 46 zenbakiko Salomon 582 modeloa. 4 aldiz erabiliak eta oso oso merke. Dei egin 79 50 41 Znbkira Jon.
- **Kutxa-izozkailu berria salgai.** 30.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Yamaha XJ 650 salgai.** Dei egin 77 11 04 tfnora 18.00etatik 22.00etara eta Santiz galdetu.
- **Trabesiako botak saltzen ditut.** 42 Zenbakikoak eta Koflach markakoak. Oso egoera onean daude. Tfnoa: 79 39 88.
- **100 litroko FAGOR termoa salgai.** la berria. Prezio ona. Tfnoa: 79 07 73.
- **Jeepa saltzen dut.** Egoera eta prezioa onean. Tfnoa: 79 81 25.

Denetarik

- **Gasteiztik Arrasatera egunero**, arratsaldeko hiruetan bueltatzeko kotxe baten bila nabil. Tfnoa: 79 37 67. Silvia.
- **Erloju txuria, urre kolorekoa**, urrezko kataia, lauburu eta gurutzeta O letraz eta urrezko eraztuna galdu zaizkit (dena erlojuarekin batez) igerilekuko aldagela handian. Tfnoa: 79 63 64.
- **Betaurrekoak galdu zitzaizkidan** orain dela 2 aste, erdialdean. Tfnoa: 79 47 45.

Aste Gazte

Euskal Dantza

• 10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaroa, Lore Gaztearen eskutik. Otsailetik Sanjuanetara. Ostegunetan, 6.30etatik 7.30etara. Matrikula: 1.000 PTA. Plaza mugatuak. Ins-kripzioak: Gazte Bulegoan.

Lana

• Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzak, atzerrian gaztelarazko irakasle lanean aritzeko hainbat lanposturen deialdia egin du. New Yorken 12 plaza, Frantzian 206

plaza (Antila-Guayanen 4 eta Reunion irlan 1), Belgikan 5 plaza, Austrian 3 plaza, Irlandan 5 plaza, Italian 10 plaza, Alemanian 23 plaza eta Britainia Handian 200 plaza. Filologian lizentziatuei, karrerako azken ikasurterako ikasleei eta magisteritzak bukatuta dutenei zuzendutako. Epea: otsailak 17.

Sexualitate-tailerrak

• 20 urtetik gorako gazteei zuzendutako. Otsailaren 1etik apirilaren 19a arte. Astearteetan, 6.30etatik

8.30etara. Monterronen. HIES Ekimena-Gazte Zerbitzuak elkarlanean antolatutako. Izen emateko epea: urtarrilak 28, Arrasateko Gazte-Zerbitzuan.

Eski-kanpaina

• Otsail nahiz apirilean astebeteko irteerak Pal-era (Andorra). Prezioa: 27.000 PTA. Plaza mugatuak.

Lehiaketak


• Clinex narrazio laburren IV. lehiaketa. Bi eratakoak, erdaraz eta euskaraz. Gai librea. Epea: otsailak 19.

"Egunak argitu zuen eta eguzkiak, horman idatzitako maitale gazteen izenak argiztatu zituen"

**TONI MORRISON,
"SONG OF SOLOMON"**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**



Neguko Hamabostaldia

Araba Etorbidea, 18
ARRASATE
Tfnoa: 77 14 86



NEGUKO HAMABOSTALDIA

Urtarrileko aldapa arinago izan dakizun,
aprobetxatu ARRASATE KIROLAKeko
aukera ezinhobea eta gogoratu, hemen
KIROL BAKOITZARENTZAT
ERANTZUN BAT duzulaJ35

J



Konizezino kalea, 8
Tfnoa: 79 46 12
ARRASATE



BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tfnoa: 79.00.49

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

ARRASATE

Tfnoa: 79.00.49



FAGOR

iK E R

SUIKAIDE ETA BAINU ALTZARIAK